

BALEIKE GUKA



SAN JUAN EGOITZA

ZAINTZAREN ZUTOINAK



ENDAÑETAK
ez du saldu
bakarrik egiten,
arreta ere
ematen du

www.endañetazumaia.com

Erribera, 8 · 943-86 16 94 · 943-86 21 47

Tien21

ESKATU DOAN ZURE ZUMAIA VISA TXARTELA

GERTU
ZUMAIAKO MERKATARI B OSTALARI ELKARTEA



Visa txartel
batek dituen
abantaila
guztiekin

Berehalako
kontsumorako
kreditua
eskaintzen
dizu



Deskontuak,
sariak,
zozketak,
puntuak...



Doako
aseguruak
ditu



Ordaindu 3
hileko epean
interesik
gabe



BALEIKE 329

2023-MARTXOA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA



Aurkibidea

- | | | | |
|----|--|----|---|
| 4 | Iritzia Gorka Zabaleta
<i>'Gu' zabalago bat</i> | 24 | Guka, Parean eta Pareko
Mailo Oiarzabal
<i>Mirene Begiristain eta Ioritz Aizpuru</i> |
| 6 | Hitz tantak Juan Luis Romatet
<i>Mady Diame: "Inork esaten badizu boxeoan beldurrik edo urduritasunik ez dagoela, gezurretan ari zaizu"</i> | 33 | Heziketa Mireia Centeno
<i>Feminismoan hazi eta hezi, ez dugu beste biderik</i> |
| 8 | Hainbat aburu Aitor Leiza Alberdi
<i>Biotopo babestua vs. Paisaia natural babestua</i> | 34 | Plazan bazan |
| 9 | Errematea Sara Ibarguren
<i>Kontuz lehoiekin</i> | 36 | Izpiak eta hizkiak Eva Franco
<i>Beauty</i> |
| 10 | Erreportajea Onintza Lete Arrieta
<i>Borrokaren B alde</i> | 39 | Hamaika argi gure euskarari
Imanol Azkue Ibarbia eta Daniel Carballo Ostolaza
<i>Mediku eta botikari euskaldunak</i> |
| 18 | Elkarrikketa Juan Luis Romatet
<i>Arantza Ugarte Lopetegui: "Heriotza bat da, baina aldi berean poza ere sentitu dugu, osaba etxera dakarkigulako"</i> | 44 | Nire txanda Rafael Del Pilar Zufia
<i>Talaimendiko tamarindoa</i> |
| | | 46 | Literatura Antton Peñalba
<i>Hamahiru ipuin</i> |

BALEIKE



Argitaratzailea
Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-86 15 45
aldizkaria@baleike.eus
www.baleike.eus

Zuzendaria
Juan Luis Romatet
jlromatet@ukt.eus
Erredaktore taldea
Maria Maya Manterola
Onintza Lete Arrieta

Argazkilaria
Arnaitz Rubio Aprea
Diseinu arduraduna
Ane Azkue
Hizkuntza arduraduna
Imanol Azkue Ibarbia

Publizitate arduraduna
Felix Aizpuru
faizpuru@ukt.eus
Administrazio arduraduna
Uxua Ostolaza
uostolaza@ukt.eus

Inprimategia
Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-405/94
ISSN: 1136-8594
Tirada: 1.000 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia

Zumaiako
Udala



‘Gu’ zabalago bat



GORKA ZABALETA UKTKO ZUZENDARI NAGUSIA

Lau urte bete dira Urolako Komunikazio Taldea (UKT) sortu genuenetik, aurrez, mende laurdenez, gure herrietan lanean aritu ziren euskara eta kultur elkarteei lekukoa hartuta. Urola Kostako eta Urola Erdiko hedabideok indarrak batuta ari gara lanean orduz geroztik, gure herritarrei tokiko komunikabide onenak eskaintzeko, etengabe eraldatzen ari den gizartearen behar berriei ahalik eta ondoen erantzuteko. Lehen euskara edo kultur elkarte ginen; orain, irabazi asmorik gabeko kooperatiba gara. Eraldatu gara indarberritzeko, gure izateko arrazoiari eutsi ahal izateko: gure errealitatea guretik kontatzeko, herritarrekin eta herritarrentzat, bertako begiekin, eta euskaraz. Eta bakarka baino hobeto elkarrekin, gu zabalago batetik.

Egin duguna

Beraz, 2019an elkartu ginen Karkara, Baleike, Uztarria, Maxixatzen, Urola Kostako Hitza eta Erlo Telebista, eta orain 33 langilez osatutako komunikazio talde multimedia bat gara. Lantalde bakarrean antolatuta, lau aldizkari, egunkari bat, telebista bat eta sei webgune argitaratzen ditugu, eta milaka dira egunero gertuko albisteak gure bitartez jasotzen dituzten herritarrek.

Lau urte hauetan gure aldizkariak hobetu ditugu, telebista indartu dugu eta atari digitaletako ekoizpena biderkatu dugu. Aurrerapauso handia egin dugu eduki digitaletan eta bideogintzan eta, aldi berean, ahalegin handia egin dugu paperezko eskaintzari merezi duen garrantzia emateko. Azken finean, elkarsteengandik oinordetzan jasotako hedabideei gure onena ematen saiatu gara.

Estrategia berria

Baina ez dugu atzera begira lo gelditu nahi. Gizartea oso azkar ari da aldatzen, informatzeko eta komunikatzeko molde, euskarri eta joera berriak ari dira nagusitzen, eta gure ardura da eraldaketa horri bizkor eta indarrez heltzea, euskarak tokiko informazioaren plaza gal ez dezan. Eta erronkari aurre egiteko, prest daukagu gure bide-orria: Guka estrategia.

Zer dago Guka estrategiaaren oinarrian? ‘Gu’ zabalago eta indartsuago bat sortzeko beharra. Gure herrietan sendo sustraitutako komunikazio taldea gara, eta gure herriekiko konpromisoa sakondu nahi dugu: herritar informatuak eta aktiboak nahi ditugu, gertuko komunitatearen ahalmenetan sinetsiko dutenak; herri biziak

eta euskaldunak nahi ditugu, garai berrietara egokitzeko gai direnak. Eta horretarako, ezinbestekoa da euskarazko toki komunikabideak eraldatzea eta indarberritzea.

Irakurle digitalak

Gustatu ala ez, gure gizartea digitala da dagoeneko. Azken hamarkadan gertatu den iraultza teknologikoak eragin sakona izan du gure egunerokoan, zer esanik ez informazioaren eta komunikazioaren esparruan. Gaur egun, UKTKo hedabideen artean, webguneak dira, alde handiz, irakurle gehien dauzkaten hedabideak. Esate baterako, joan den urtarrilean, 860.000tik gora ikustaldi izan zituzten gure sei webguneek. Egunero milaka zarete gure irakurle digitalak, eta adin tarte guztietakoak. Alde horretatik, arrakastatsua izan da gure webguneek egin duten bidea.

Bazkideak, paperean

Bestalde, oraindik ere paperezko argitalpenak ezinbesteko erreferentzia dira gure bazkideentzat eta harpidedunentzat. Paperezko jaio ginen duela 25-30 urte, eta horrek erabat ezaugarritu gaitu gaur arte. Gure ordainpeko bazkide fidelenek paperezko aldizkariari diote atxikimendua,

haiek ere, albiste gehienak dagoeneko digitalean irakurtzen dituzten arren. Hori bai, gauzak diren bezala, adin batetik beherakoak (40 urte?) oso gutxi dira paperezko hedabideen ohiko kontsumitzaile.

Kosteen garestitzeak ere zaildu egiten du paperezko argitalpenen etorkizuna. Esku artean daukazun aldizkarian igerriko zenuen aldaketarik. Orain arte 48 orrialdekoa zen aldizkaria, eta beste 16 orrialde zeuzkan Guka gehigarriak erdian. Aurrerantzean, 48 orrialdeko argitalpen bakarrean jasoko duzu dena.

Erabaki horrek zerikusi zuzena du inprentako gastuek azken bi urteotan izan duten gorakada handiarekin. Paperaren prezioa bikoiztu egin da eta aldizkariak inprimitzea %30 garestitu da pandemia ondoren. Bestalde, azaldu beharrik ez dago zenbat garestitu den bizitza oro har; guk ere neurriak hartu behar izan ditugu gure diru kontuak nola edo hala orekatzeko.

Erabaki dugu gastuen igoera neurrigabearen erdia kooperatibak berak hartuko duela bere gain, eta beste erdia bazkide kuotak egokituz eta inprentako gastua murriztuz berdintzea. Dena den, edukirik ez da galduko, paperean inprimatu gabe gelditzen dena digitalean eskainiko dugulako.

Bestalde, kazetaritza eduki landuei emango diegu lehentasuna aldizkarietako orrialdeetan.

Produktutik proiektura

Hortxe, beraz, hedabideon erronka: nola zabaldu gure bazkide multzoa, betikoei eutsiz eta belaunaldi berriak erakarriz, ekonomikoki ere bideragarri izateko? Nola lortu babes handiagoa gure irakurleengandik? Gure iritiz erantzuna proiektuaren xedean dago, produktutan baino.

Produktuak, euskarriak, moldeak eta tresnak aldatu egingo dira gizartearen joeren arabera; kontua da egokitzen jakitea eta garai bakoitzean gure izateko arrazoiak arrakastaz bete ahal izatea. Horretarako, proiektua babestuko duen komunitate zabalagoa behar dugu, tokiko informazioa euskaraz nahi duten kideak nahi ditugu, edozein dela euskarria.

Segurunez, honezkero ohartuko zinen, irakurle, aldizkari honen azalean badela aldaketa bat. Betiko markarekin batera, hor ageri da Guka, bide berriaren iragarle. Hurrengo hilebeteetan azalduko dugu xehetasun gehiagorekin zer datorren, zergatik eta zertarako, baina mezua garbia da: herri, talde, eragile eta herritar

bakoitzaren beharrei erantzutera dator; euskarri, tresna eta kidetze aukera berriekin, irakurle gehiagorengana iristeko, herritar gehiagoren atxikimendua lortzeko, tokian tokiko komunitateak indartzeko.

Gure egitekoa ez da aldatu, eta ez da aldatuko: tokiko kazetaritza euskaraz. Gainontzeko guztia aldagarri da, helburua lortzeko mesedegarri bada. Lehen hainbat elkarte ginen, orain kooperatiba batean antolatu gara. Elkarrekin eskuzabal jokatu dute, izan berri baten mesedetan. Langileok ere apustu handia egin dugu, besteak beste, kooperatibari gure diru ekarpenak eginez. Hurrengo hilebeteetan, pixkanaka, estrategia berriak hartuko du lekukoa. Herri herri jarraituko dugu kazetaritza egiten, baina gu zabalago batetik, Guka egin nahi dugulako. ■

"TOKIKO INFORMAZIOA EUSKARAZ NAHI DUTEN KIDEAK NAHI DITUGU, EDOZEIN DELA EUSKARRIA"

Mady Diame: "Inork esaten badizu boxeoan beldurrik edo urduritasunik ez dagoela, gezurretan ari zaizu"

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET

ARGAZKIA: ARNAITZ RUBIO APREA

Senegalen jaioa 1998. urtean, 2014an iritsi zen Zumaiara bizitzera. Aitak animatuta hasi zen boxeo praktikatzen, eta gaur egun Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketetako borrokaldiak jokatzeko ditu.

Nolatan hasi zinen boxeoaren munduan?

Gure aita aritzen zen boxeoan, eta berak animatu gintuen. Nik taekwondo gogokoago nuen, baina bi urteren ondoren eskola itxi zuten, hemen, Zumaian. Hor animatu ninduen aitak boxeoan hasiera. Ruben [Arredondo, Zumaia Cuban Boxing klubeko arduraduna] ezagutzen zuen aitak, eta berak ekarri ninduen. Entrenatzen hasi nintzen, ikusi nuen oso giro ona zegoela, eta azkenean *engantxatu* egin nintzen.

Kirol biolentoa izatearen fama du boxeoak. Horrek ez al zintuen beldurru hasiera hartan?

Hori da hasieran pentsatzen nuena, biolentoa zela boxeoak. Egia da kontaktuko kirola dela, hori inork ez du zalantzan jarriko, baina entrenamenduetan ez da inoiz borrokarik-eta izaten; ia jolasean ibiltzen gara gure artean. Azkenean, mugak daude, bete beharreko arauak ere bai: ezin duzu era honetan kolpatu, beste modu honetan ere ez, bestela, kanporatu egiten zaituzte. Hasieran bai, beldur pixka bat banuen, baina gero, behin probatuta, ikusten duzu ez dela hainbesteko.

Boxeoan hasi zinenen ba al zenuen ringera igotzeko asmorik? Edo nahikoa zenuen entrenamenduekin?

Hasieran entrenatzearekin nahikoa nuen; ez nekien soka saltoan ibiltzen ere. Gero, lagunak-eta ikusten nituen boxeoan, Josu, Jon...

Haiengandik oso urruti nengoela uste nuen, baina Rubenek esaten zidan dena praktika kontua zela, praktika eta jarraitasuna. Hasi eta urtebetera maila hobea nuen; hainbeste gustatzen zitzaidan, ringera igotzera animatu bainintzen. Aitari esan nionean poztu egin zen: "Ikusten dut orain gustatzen zaizula", esan zidan. Lehen borrokaldia, oker ez banago, Astigarragan izan nuen, eta gurasoak joan ziren ikustera. Aita gehiagotan

etorri da; ama, ez. Semea kolpeak jasotzen ikusteak ez dio grazia egin.

Nola gogoratzen duzu lehen borrokaldi hura?


Oso sartuta nengoen borrokan. Gogo handiak nituen, eta irabazi ere egin nuen. Galdetu zidaten ea urduri nengoen, eta ez, ikasitakoa praktikan jartzera joan nintzen. Urduritasuna banuen, noski. Inork esaten badizu boxeoan beldurrik edo urduritasunik ez dagoela, gezurretan ari zaizu. Beldurra duzu, aurkari bat duzulako aurrean eta hark ere dena emango duelako.

Borrokaldi batean kolpeak jasotzen ari bazara, erraza izaten al da kontrola mantentzea? Zoro-zoroan eta kontrolik gabe erasotzeko arriskurik ez al dago?

Tentsio une horretara ohitu egiten zara azkenean. Lasai egon behar duzu, buru hotzarekin. Beti egoten naiz horrela, burua hotz mantentzen saiatzen naiz. Eraso egiten dut, mugitu, defendatu. Une batean pentsa dezakezu *hiltzera* joan behar duzula, baina ez da horrela egin behar. Burua galtzen duzu, eta teknika jarraitu beharrean, besoak beherantz dituzula joaten zara eta hor gehiago jasotzen duzu. Borrokaldia galtzeko arrisku handia izaten da hor. Behin edo beste gertatu zait: aurkaria zirikatzen ari zitzaidan, eta hain urduri jarri nintzenez, erasotzera joan nintzen; baina Rubenek heldu eta lasai egoteko esan zidan. Garrantzitsua da burua argi edukitzea, bestela jaso egiten duzu eta.

Boxeoan ametsik ba al duzu?

Gauza asko. Bereziki, Madisonen [Madison Square Garden, New Yorkeko areto mitikoa] borrokatzea! Mady Madisonen! Boxeoak ez du sekreturik: lana, lana eta lana egin behar duzu. Larunbatetan eta igandeetan izan ezik, egunero entrenatzen dut. Beno, larunbat batzuetan ere bai. Boxeoan jarraitzeko asmoa daukat; oso sartuta nago, eta entrenamendu batean huts egiten badut, uf, sumatzen dut zerbait falta dudala. Abenduan oporrak hartzen ditugunean beste zerbait egin behar izaten dut: mendira joaten naiz korrika egitera, edo kiroldegira... Ez naiz geldirik egoten. ■■■





Biotopo babestua vs. Paisaia natural babestua

Gizakia sistematikoki joan da ingurunea egokitzen eta moldatzen ongizatearen eta eboluzioaren izenean. Horren ondorioz, hainbat ekosistema izorratu ditugu, baita hauetako batzuk suntsitu ere, ia desagerrarazi arte. Bizitza hala delakoan, gizarteak onartu egin du hori hasiera batean, jakin gabe zer ondorio ekar zitzakeen. Behin informazio zientifikoa lortu dugunean konturatu gara bide okerretik gindoazela.

Talde ekologistak sortzea ekarri zuen kezka horrek. 1988. urtean sortu zen Zumaiaiko Natur Taldea. Herriko txoko garrantzitsuenek zuten balioa adierazten saiatu zen hainbat urtetan. Horien artean daude padura, Santiagoko duna, artadia eta Zumaia eta Deba arteko eremuak. Leku haiek

babestu behar ziren, baina neurri egokiak ez hartzearen ondorioa da jende kopurua asko handitu dela naturaren kaltetan. Eusko Jaurlaritzak hainbat babes eremu izendatu zituen Europako Batasunean sartu aurretik: Aralar, Aiako harria, Urkiola... Babesguneak sortzeko erabakia

Jaurlaritzarena zen; eskumena, aldiz, aldundiena; haiei zegokien eremu horien kudeaketa. Garai berean, babestutako eremu komunitarioak sortu beharraren ideia heldu zen Europatik.

1992an sortu zuen Europako Batasunak Natura 2000 Sarea izeneko figura. Espainiako Gobernuak behartuta, Eusko Jaurlaritzak zenbait eremu sare horren barruan sartu behar izan zituen, Europa mailako babes

jaso ahal izateko. Aurrez babestuta zeuden eremuez gain, beste hainbat izendatu behar izan zituen. Urolako itsasadarra da Natura 2000 Sarean sartutako eremuetako bat. Bioaniztasuna kudeatzeko eta babesteko tresna da Natura 2000 Sarea. Hala, babestu beharreko habitatak identifikatzen ditu, baita Europa mailan aplikatu beharreko fauna eta florari buruzko protokoloak sortu ere. Egoera txarrean dauden ekosistemak hobetzeko dirulaguntzak ere lor daitezke figura horri esker.

Zumaia eta Deba arteko eremua *Biotopo babestua* figurarekin babestu zuten, zituen balio geologiko eta ekologiko handiengatik. Beste leku askotan biotopoak zirenak Natura 2000 Sarean sartu

HAUXE BAI JENEROA!



ERREMATEA



SARA IBARGUREN

zituzten. Zarauzko Inurritzako biotopoa da horren adibidea. Jaurlaritzak orain izendapena aldatu nahi dio Deba-Zumaia biotopoari, baita Araba, Bizkai eta Gipuzkoako beste biotopo batzuei ere. Izendapen berritik *biotopo* izena kentzeak konnotazio batzuk dakartza: *bizitza dagoen eremua* esan nahi duen terminoa kendu nahi dute eta horren ordezt *paisaia natural babestua* erabili.

Horregatik, kezkarriak iruditzen zaizkit:

1. Formak egokiak izango dira, baina nola ez digute herritarrei aurrez esan Geoparkeak edo udalak prozedura martxan zegoela?
2. Zer arrazoi dago Deba-Zumaia eremua Natura 2000 Sarean ez sartzeko?
3. Izendapen aldaketa honek paisaiari balore gehiago

emango dio bertoko bioaniztasunari baino?

4. Bioaniztasunak lege bereziak behar ditu gizakiek sortutako sarraskiak ekidin eta egoera ekologikoa hobetzeko.
5. Indarrean dagoen kudeaketa plana egiterakoan ez dira izan gardenak eta herritarren parte hartzerik ez da egon. Derrigorrezkoa ez da izango, baina zintzoa bai.
6. Aldundiak ez du baliabiderik itsas-eremua kontrolatzeko.

Bat egiteko momentua da ingurumenaren eta bioaniztasunaren babesean sinesten badugu. Geoparkeak eta udalek Deba-Zumaia eremua Natura 2000 Sarean sartzeko egin beharreko prozedura berehala abian jar dezala eskatu behar diote Eusko Jaurlaritzari. ■■■

Kontuz lehoiekin

Hainbat kasutan kezkatu egiten nau pentsatzen duguna modu librean esateko ezintasunak. "Hori ez esan honen edo bestearen aurrean, badakizu-eta nola jartzen den" esaldia noizbait denok esan eta entzun dugulakoan nago. Aurreko batean, eztabaida bat izan ostean, norbaitek esan zidan dagoeneko ikasi duela hizketagai batzuk ez ateratzen, inguruan duen jendearen arabera. Egia esan, arrazoiak duela uste dut, baina nahiko larria iruditzen zait. Errespetuz izanez gero, bakoitzak pentsatzen duena esateko aukera izan beharko luke, inor mintzeko intentziorik ez duenean behintzat.

Ez naiz *Mr. Wonderful* moduan jarriko, badakidalako batzuetan zaila dela pentsatzen duguna argi eta garbi adieraztea. Zerk geldiarazten gaituen jakin nahiko nuke: lotsak? Beldurrak, agian? Era berean, amorrua ematen dit nahitaez arrazoiak izan behar duen jendeak. Kontuz horiei aurre egitearekin, lehoiak bailiran etor dakizkizuke gainera. Hala ere, esaten dutena zure printzipioen kontrakoa bada, desadostasuna agertzearen aldekoa naiz.

Horretarako, ordeak, lehoiak hezten jakin behar da, badaezpada. ■■■



Borrokaren B aldea

San Juan egoitzako langileek egindako protestek eman dituzte aurreneko fruituak, oraindik fruitu gehiago behar arren. Klase borroka, borroka soziala eta borroka feminista uztartzen ditu adinekoen egoitzetako gatazkak, argi dute hori Sonia Cardenal, Aitziber Markiegi eta Maite Marmol egoitzako laguntzaileek. "Harro" daude lortutakoaz, baina pertsonen ere aritu nahi dute, lehen pertsonan.

Testua: **Onintza Lete Arrieta.**
Argazkiak: **Arnaitz Rubio**
Aprea.

A skok, edo batzuek, zorte gehien dutenek, lau aiton-amonak ezagutu dituzte. Badira gutxi batzuk, ordea, "aiton-amona mordoa" dutenak. Hala dituztela sentitzen dutenak, behintzat. San Juan adineko egoitzako Sonia Cardenal, Aitziber Markiegi eta Maite Marmol auxiliarrak dira horietako batzuk. Cardenalek hala deskribatu du egoitzan bizi diren adineko pertsonetikiko sentitzen duena, kazetariak galdetu dionean ea zer poztasun ematen dieten horiek: "Gauza ederra izaten da egun ona dutenean. Edo besarkatzen zaituztenean. Gaixotzen direnean ere, etxera kezka horrekin joaten zara, eta hurrengo egunean aurrena galdetzen duzuna da ea nola dagoen halako aitona edo amona. Gure aiton-amonak balira bezala; gure-gureak bezala. Izan ere, egia da gureak direla; aiton-amona asko ditugu". Barrez hasi dira hirurak. Orain egin dezakete barre. Hainbat borrokaren ondoren, lortu dutelako egoitza mailako hitzarmen duina.

Oraingo hitzordua, baina, ez da borroka horretaz hitz egiteko, ezpada borrokaren B aldeaz: gatazken atzean dauden pertsonen. Esaterako, akordioa sinatu zutenean, abendu bukaeran, sentitu zutenaz. Cardenalek zalantza izpirik gabe erantzun du: "Guztiarekin ahal genuela. Borrokatuz lortzen direla gauzak. Ni, zalantzarik gabe,





"AITON-AMONEK BAI MEREZI DUTELA GU GUZION AITORTZA"

"ONDO ZAINDUTA DAUDE GU GAUDELAKO, EZ ALDUNDIAGATIK"

AITZIBER MARKIEGI

horrekin gelditzen naiz. Ez bada borrokatzen sofán gelditzen zara, ezer egin gabe, baina borrokatuz, gauzak lortzen dira". Indarra, nekea ala poza sentitu ote zituen? Beste gauza bat izan zen: "Harrotasuna greban aritu ginen lan taldearekiko, eta harrotasuna, esateko elkar hartuta posible dela". Bide beretik mintzatu da Marmol: "Borrokan bi parte izan dira garrantzitsuak: sindikatuko ordezkariak, lehen pausoak emanez, eta gainontzeko langileok, haiei atzetik segika. Harro? Horixe harro nagoela nire lankideez. Baita [San Juan] egoitzaz ere".

Harrotasuna bai, baina tristura ere sentitzen du Markiegik azken hilabetez eta urteez oroitzean. Izan ere, bi zailtasunek bat egin zuten aldi berean: lan baldintzak hobetzeko borrokak, eta COVID-19 birusak eragindako pandemiak, horrek ekarri zuen soka luzearekin. "Pandemia iritsi zenean gu greban ginen, eta zer zetorren ikusita, gelditu egin genuen, gehienbat aiton-amonengatik. Oroitzapen tristeak eta gogorrak ditut garai hartatik. Zortez, oso berandu sartu zen [koronabirusa] egoitzan, eta ez zen inor hil pandemiagatik. Zorionez, horretan ez daukagu esperientziarik. Baina, hala ere, tristea izan zen, oso zaila delako azaltzea 90 edo 95 urteko

pertsona bati bakarrik egon behar duela, ezin dituela senitartekoak ikusi, ukitu, sentitu, eta hor, gure lana ez zen auxiliarrena soilik izan; psikologo, familiar eta lagun moduan ere aritu ginen. Niri hori iruditzen zait gogorrena, beraiegatik".

Cardenalentzat ere pandemiako gauzarik gogorrena aiton-amonen bakardadea izan zen. "Bideo deiak, esaterako, beldurgarriak ziren guretzat. Aiton-amonek ez zuten ulertzen zer zen sistema hura, ezin zuten pantaila ukitu.... Oso tristeak izaten ziren bideo deiak; niretzat, pertsonalki, pandemia garai osoko gauza tristeena. Saiatzen zinen beraien aurrean ez errebentatzen, baina deia amaitzen zenean, puf! Izan ere, ezin zuten harremandu beren senitartekoekin: ezin badituzu ikusi, ezin badituzu entzun, eta ezin badituzu ukitu, eta ez baduzu ulertzen zer gertatzen den... Pentsatzen dut familiei gauza bera gertatuko zitzaieela. Deia amaitu, eta zure amarekin komunikatu gabe gelditzea...".

Bokaziozko lana

Bost urte daramatza San Juan egoitzan lanean Markiegi zarauztarrak. Ia hoge, Marmol azpeitiarrak –Zumaian bizi da–. Eta hogeita bost bai, Cardenal zumaiarrak. Hirurek esan dute bokaziozko lana dutela, eta nabaritzen zaie hizketan egiteko moduan. "Nik berandu aurkitu nuen nire bokazioa, baina argi dago bokaziozkoa dela lan hau", aitortu du Markiegik. "Noski, lana eta dirua beharrezkoak dira, faktore horiek ere hor daude, baina

pertsonekin ari gara, ez dira makinak. Bokazioa behar da eta, ez badago, segituan igartzen da", iritzi dio.

Lan horrek edo, hobe esanda, zaintzen dituzten pertsona horiek gauza on asko ematen dizkietela ere kontatu dute. "Adibidez, goizetan ohetik ateratzerakoan, eserarazten dituzunean, hara!, batzuetan gerria besarkatzen dizute, eta bost minutu ematen dizkiozu pertsona horri horrelaxe egon dadin, zuri besarkatuta. Hori behar baldin badu eman egiten diozu, eta gero jarraituko duzu lanean korrika. Txanda aldaketengatik edo oporregatik egun batzuetan ez bazara joan ere, ongietorria egiten dizute gero. Momentu horiek dira eguna pozten dizutenak", kontatu du Cardenalek. Marmolek, berriz, aiton-amonen aurpegietan jartzen du arreta; haien aurpegiera ona denean pozten da. "Dena esaten dute haien aurpegiek, begitarateek".

Markiegik samurki hitz egin du, irribarrea ezpainetan: "Asko-asko betetzen du lan honek. Momentu on asko daude; txarrak eta gogorak ere bai, baina onak, asko".

Txarrak, oro har, ratioen ezarpenei lotutakoak dira; beste era batera esanda, denborarik ez dute aiton-amonak egoki zaintzeko. "Auxiliar bat zortzi pertsonarekin: imajinatu zer atentzio emango dudan", kexatu da Markiegi. Cardenalek eman ditu zehaztasunak: "Ratio horietan, gainera, sartzen dira psikologoa, medikua, erizaina... gurekin batera. Denak berdin kontatzen dira, zuzeneko atentzioa balira bezala, baina klaro, ez da gauza bera momentu puntualetan beraiek duten esku hartzea eta guk ematen dugun zerbitzua. Guk ematen dugun zuzeneko atentzioa ez da ordu eta

Protesta gehiago datoz

San Juan egoitzako langileek greba mugagabea hasi zuten abenduaren 12an beren lan baldintzak hobetzea eskatuz. Hamabi egun ondoren, akordiora iritsi ziren ELA sindikatua eta egoitza kudeatzen duen Zaintzen enpresa. Langileek batzarrean akordioa onartu, eta greba amaitutzat eman zuten abenduaren 23an. Hala, %13ko soldata igoerak lortu zituzten langileek, eta 2019tik 2022ra arteko urtez urteko igoerei dagozkien atzerapen guztiak ere jasoko dituzte. Hobekuntza horiek kontratazio



berriei ere aplikatuko zaizkiela jakinarazi zuen ELAk.

Sektoreko hitzarmena

Azken protesten aurretik, sektoreko hitzarmena lortzearen alde 262 greba egun ere eginak zituzten San Juan egoitzako langileek azken

urteetan –pandemia iristean bertan behera utzi zuten–, eta borroka horrek aurrera jarraitzen duela zehaztu diote BALEIKERi Maider Bollain eta Arri Arranz San Juan egoitzako ELAko ordezkariak. "UGTk gutxiengoan adostu du akordioa patronalaren zati batekin, eta soldata igoera bakarrik bermatu da, hori ere prekariora. Baina guk beste baldintza asko eskatzen genituen egoitzentzat: ratioak aldatzea, esaterako".

Horregatik, datozen aste eta hilabeteetarako mobilizazioak aurreikusi dituzte, "herritarrek eta instituzioek ikus dezaten borroka hau ez dela amaitu eta jakin dezaten egoitzetan ez gaudela ondo".

PUBLIZITATEA

a3 diseinua
inprimatzea

Alai 8. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
tel: 943-14 31 22 • fax: 943-14 31 20
a3@a3zumaia.com • www.a3zumaia.com

f t i

Agurtzane Okindegia

Erribera 2 • 943-96 21 52

Aita Mari
JATEXEA
ZUMAIA

679 10 31 67
Juan de Zigarán, 1
Zumaia
@aitamarijatexea@gmail.com

f i

AIZPURUA
LIBRURIA
DENDA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943-86 15 69

AL-ANON

Alkoholiko senide eta lagunen elkarte
Tel. 650 26 59 63
Ordutegia: asteazketan, 20:00-22:00
larunbatetan, 19:00-21:00

ALBERDI
dekorazioa

• Eskaiola
• Pladur-a

696 72 61 88
943-14 32 61

Amama
taberna

tel. 943-57 46 51
amamataverna@gmail.com
Ortega y Gasset kalea 4. Zumaia (Gipuzkoa)

Ane Ibarretxe • Hariz Klinika

Árdantzabide, 3 behe • Zumaia
943-54 35 70 • 688 73 38 56

OKINDEGIA
Arkupea

Naupasa, 2 • tel. 943-96 15 21
ZUMAIA

OGI-EDER

ATARI
TABERNA

Pintxo bereziak eta olagarro-zopa

Árdantzabide, 16 • Tel. 943-50 91 69

BOSCH
Service

Bosch Car Service

Autos Zumaia

Gasolina injezioa Balaztak, ABS, ESP
Diesel injezioa Mantentze mekanika
Elektrizitatea/Elektronika Motorren mekanika
Piztea Hozte sistemak

Urola plaza 3-5 Tel. 943-86 14 85
autoszumaia@bosch-bcs.com

AXA

943-53 03 97
688 71 26 21
Kantauri 2, behe
aseguruak.zumaia@agencia.axa.es

finés, francés, euskara, inglés, alemán, español, catalán, sueco, húngaro, portugués, griego, italiano, japonés, coreano, chino, vietnamita, tailandés, indonesio, malayo, filipino, vietnamita, tailandés, indonesio, malayo, filipino.

Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L.

San Isidro, 25
20749 Arroa
tel./faxa 943-14 83 06
bakun@euskalnet.net

Basadi
albaitaritza

Albaitaria
Miki Garmendia

Basadi, 7, behe • tel. 943-14 33 10
veterinaria@basadidivul.com
www.basadidivul.com

Golze: 11-13 / Arribak: 15-19:30 / Astelehen golzean eta larunbatetan itxia
Larrialdetarako: 605 72 87 07 Etkez etxeak zerbitzua

BASUSTA
erretegia • asador

José Blázquez

Patzita Etxezarreta, 25 Tel.: 943-86 20 73
20750 Zumaia (Gipuzkoa) 943-86 04 38
asadorbasusta@hotmail.com

EDU
ZUMAIKOA
OPTIKA

Txomin Agirre kalea, 6
20750 Zumaia, Gipuzkoa
943-14 30 57
www.eduoptika.com

RPS 18/16

LIZZE

EGOKI

Erloju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943-86 17 87

erdira iristen eguneko eta pertsonako, eta horregatik, duela denbora bat sindikatuek kanpaina abiatu zuten, bi orduko zaintza aldarrikatuz. *Zaindu nazazu bi ordu zen leoa*".

Markiegik argi hitz egin du: "Ondo zainduta daude, gu gaudelako. Gure esfortzuagatik, eta bokazioa dugulako. Baina ez aldundiaren aldetik edo enpresaren aldetik neurriak hartu direlako. Gauzak aldatu egin behar dituzte". Cardenalek ere zalantzarik ez du aldaketak behar direla, eta baita horiek non hasi behar diren ere: "Goitik etorri behar du aldaketak. Politikariak, aurrena, adinekoen egoitza batera joan behar lukete, eta bertatik bertara ikusi zein den errealitatea, egunerokoa. Zeren beraiek ez dute hori ikusten. Paperaren gainean bakarrik ikusten dute. Enpresen zuzendaritzek, berdin. Horiek enpresaburuak dira, eta zenbakiak soilik ikusten dituzte. Haientzat langileok nominak gara, eta aiton-amonak, kuotak".

Adineko egoitzetako langileen borrokak borroka asko barnebiltzen ditu, eta onuradunen aldeak, onuradun mota bat baino gehiago. Azken zati horri dagokionez, Cardenalek hartu du hitza hiruren izenean: "Gure borroka ez da soilik soldatarena eta lan baldintzena; zaintzen alorra hobetzeko borroka ere bada. Pentsa, goizetan, gutako bakoitzak zortzi aiton-amona 09:00etarako prest eduki behar ditu. Esnatzen direnean 'egun on' esan eta beraiekin pixka bat egon beharrean, dena korrika egin behar dugu, gosaria emateaz gain, garbitu egin behar ditugulako eta atenditu. Beraz, egun osoa korrika gabilta. Beren beharrei erantzuten diegu, bai, baina langile gehiago bagina, zainketa askoz hobea izango litzateke. Soldata hobeez gain, nahi duguna da langile gehiago egotea, espezializatuagoa, pertsonak hobeto zaintzeko".

Aurreneko puntuari dagokionez, hau da, borroka bakarrak barnebiltzen dituen borrokez, langileek uste dute borroka soziala dela alde batetik, klase borroka bestetik, eta baita borroka feminista ere. Marmolek hartu du hitza: "Sektorean gehien-gehienak emakumeak garenez, ez da baloratzen, betidanik guk egin izan ditugulako zainketa lanak, eta orain, ordaindu behar denez, ez da ondo ikusten; aldundiak ere badirudi ez duela ondo ikusten. Ez da esker onekoa, ez zuzendaritzaren aldetik, ez politikarien partetik, eta borrokari hainbat alderdi gurutzatzen dira; esaterako, banandutako emakumez aprobeztatzen dira, eta horiek dituzten behar ekonomikoez", salatu du.

Norberaren zahartzaroa

Gauza bat da hurkoa zaintzea eta, beste bat, norbera egoera horretan imajinatzea. Elkarriketatuek ez dute gehiegi pentsatu beren zahartzaroan, baina ez dute baztertzen egunen batean beraiek ere adinekoen egoitza baten beharra izatea. Txantxetan



**"EZ DUT NEURE BURUA
GAIXO IKUSI NAHI,
EGOITZA BATEAN"**

**"ASKO ALDATU BEHAR
DIRA GAUZAK, BATEZ
ERE MENTALKI"**

MAITE MARMOL



"EZ NUEN POZA EDO NEKEA SENTITU, HARROTASUNA BAIZIK"

"PANDEMIAKO GAUZA TRISTEENA BIDEO DEIAK IZAN ZIREN"

SONIA CARDENAL

hasi da Cardenal: "Jada gela erreserbatuta dugu San Juanen, kar-kar-kar! Askotan komentatu izan dugu ez garela amona errazak izango. Ez dakigu non eta nola amaituko dugun, baina tira....". Zintzoa izan da Marmol: "Ez nuke nahi egoitza batean sartu zahartzean, ez dudalako pentsatu ere egin nahi noizbait gaixotu naitekeenik. Ez dut pentsatu nahi, ez dudalako neure burua gaizki ikusi nahi".

Zahartzaroa nola bizi nahiko luketen galdetuta, Marmolek argi esan du "bakean eta lasai" pasatu nahiko lukeela bizitzako azken etapa, "eta ondo zainduta". Markiegik, berriz, aitortu du ez duela horretan sarritan pentsatu. Baina eman du bere iritzia, lanean ikusten duena kontuan hartuta: "Argi dago aiton-amonak egoitzara etortzen direnean triste etortzen direla. Beren etxean egon nahi dute, eta han hil. Beraz, une gogorra izaten da egoitzara iristen direnekoa, baina horretarako ere bagaude gu. Argi dut egoitzaren aukera hor dagoela, eta neure burua ikusten dut bertan, batez ere nire semea-eta ez lotzeko gehiegi, baina gustatuko litzaidake egoitzetan gauzak aldatzea. San Juanen dugun bezalako langile taldearekin bai, egoitza batean egongo nintzateke zahartzean, baina azken urtean sartu direnen perfilekoekin, ez. Lehen esan bezala,

aiton-amonak ondo zainduta daude, gu gaudelako; gure esfortzuagatik".

Marmol kezkatzen du zahartzaroak; Markiegi eta Cardenal, ez. "Momentuz ez", esan du aurrenekoak. Bigarrenak luzeago erantzun du: "Ez zaitu kezkatzen, tokatzen zaizun arte. Niri, esaterako, gurasoekin gertatu zitzaidan. Etxean ezin zen zaindu aita, eta egoitzara eraman genuen, San Juanera. Neu han nengoen, eta non egongo zen, bada, hobeto? Han 24 orduz daude babespean. Medikua eta erizaina badituzte, eta beti dute ondoan norbait abisatuko duena zerbait gertatzen bada", kontatu du. "Hobeto egon daitezkeela egoitzak? Bai, eta nahiko genuke Liburu Berdea deituriko hori bideragarria balitz. Baina horretarako gauzak asko-asko aldatu beharko lirateke. Hasi egoitzetatik, segi langileen ratioetatik, eta aurrez aurreko eguneroko sistemara arte. Pertsona bakoitzarentzat 10-15 minutu eduki beharko genituzke, eta ez ditugu".

Marmolentzat ere "asko aldatu behar dira gauzak, batez ere mentalki", iritzi dio. "Ez badugu ulertzen eta barneratzen geu ere zainduak izango garela, aldundia-eta ez dira aldatuko. Pentsatzeko eta egiteko erak asko aldatu behar dira".

Amesten duten egoitza

Herri batzuetan erakundeak hasi dira adinekoen zaintza eredua aldatu nahian. San Juaneko langileek azaldu dute Liburu Berdea izenez ezagutzen den eredua dela. Markiegik kontatu du modelo

horretan adineko pertsonak banakako geletan egongo lirатеkeela, eta gela bakoitzak bere komuna lukeela, eta atentzioa ere desberdina litzatekeela, erabiltzaile edo pertsonengan zentratuta. "Etxean egotearen antzekoagoa bihurtu nahi dute. Baina oso zaila dela iruditzen zaigu. Soniak zioen bezala, ratioak jartzen dituztenak ez daude egoitzetan gure lana ikusteko. Oso polita da pentsatzea beharbada etorkizun batean zure gurasoak horrelako egoitza batean sar daitezkeela, hotel baten itxura duen egoitzan, baina ez zaigu egingarria iruditzen. San Juanen, adibidez, hori lortzeko erabiltzaile erdiak kanporatu beharko lirатеke; gaur egun 50 daude, eta 25entzako legoke tokia. Etxea ere behera bota eta dena berritu beharko lukete", iritzi dio.

Modelo egokia litzatekeen galdetuta, ordea, hirurek diote baietz. "Ideala da, baina asko aldatu beharko lukete gauzek. Modelo hori jarri nahi dute, baina, aldi berean, esaten dute ratioz pasatzen garela. Ederki gaude!", bota du Cardenalek.

Aiton-amonekin makina bat gauza txiki egin nahi lituzkete Cardenalek, Marmolek eta Markiegik, baina gaur egun, ezinezkoa da Markiegik kontatu duenez: "Lehen esan dut aiton-amonak ez direla makinak, pertsonak direla, baina gu bai gara zenbakiak; makinek bezala egiten dugu lan, eta ez daukagu aukerarik aparteko ezertxo ere egiteko. Gauza asko egin nahiko genuke beraiekin, baina denborarik ez dugu, eta enpresaren aldetik, babesik ere ez. Azken batean, denbora kontua da guztia".

Aitortzaren zain

Elkarriketaren hasiera samarrean aritu dira pandemiak hizketan, eta Markiegik bizpahiru ideia azpimarratu ditu orduan. Batetik, ahaztu egin direla pandemia pasatako beldurrak, kezkak eta nekea, baita aiton-amonen bakardadea ere. Bestetik, aitortzarik ez dela egon instituzioen eta enpresaren partetik. "Lehen lerroan egon ginen gu, eta hala jarraitzen dugu, eta beharrezkoa zen, eta da. Bai. Baina azkarregi ahaztu zaigu orduan bizitako guztia eta horrek sortutako ondorioak, eta horiek ez dute alde egin. Nekea hor dago. Pasatutakoa hor dago. Ni oraindik zain nago enpresaren edo instituzioen partetik aitortza jasotzeko. Ez dut saririk edo oparirik espero. Soilik, elkartu langile guztiak, eta bi hitz entzutea: 'eskerrik asko'. Hori besterik ez, baina garrantzitsua eta beharrezkoa dela uste dut".

Azken hitzak, berriz, *bere* aiton-amon guztientzat izan ditu: "Aiton-amonek ikaragarri sufritu zuten pandemia. Haiek bai merezi dutela gu guztion aitortza". ■

bertako

igogailuak | ascensores

-REKIN BAI!

GIPUZKOA

943 903 450

DROTARIKO ZERBITZUA

100€-tik/hileko

- Baietz mantentze-lan profesionalari
- Baietz benetako 24/7/365 zerbitzuari

www.bertako.eus

"Heriotza bat da, baina aldi berean poza ere sentitu dugu, osaba etxera dakarkigulako"

ARANTZA UGARTE LOPETEGI IGNACIO LOPETEGI OLIDEN GUDARIAREN ILOBAK

Gerran hil eta zortzi hamarkada luzez desagertuta egon den gudariaren gorpuzkiak berreskuratu ditu Ignacio Lopetegi oikiarraren sendiak, baita Oikiako hilerrian lur eman ere. Hutsune bat, presentzia bat... Urte hauetan guztietan familian bizitakoaren berri eman dio *Baleikeri* haren ilobak.

Testua: **Juan Luis Romatet**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

Udan hil zen Ignacio Lopetegi Oliden (Oikia, 1913) gudari oikiarra, 1937ko ekainean, Artxandako batailan, Bizkaian, 1936ko Gerrako nazionalei aurre egiten ari zela. San Andres batailoiko gudaria zen Lopetegi, ELA-STVri atxikia. Gerrara joateko hautua hartu zuen, Oikiako, Zumaiako eta beste herrietako gazte askok bezala. Baina haietako batzuk ez bezala, Lopetegi ez zen etxera itzuli. Ez hori bakarrik: haren gorpua desagertuta egon da zortzi hamarkada luzez. Bere amak eta zazpi anai-arrebek ezin izan zuten behar bezala agurtu, omendu, gogoratu.

Orain urtebete, baina, 2022ko martxoan, hobi komun bat aurkitu zuten Begoñako hilerrian, Bilbon. Bertan, 43 gudari eta milizianoaren gorpuzkiak aurkitu zituen Aranzadi zientzia elkarteak. Haietako bostek xafila batzuk zeramatzaten, eta plaka txiki horien bidez izan zuen Gogora Institutuak gorpuak identifikatu eta haien familiartekoekin harremanetan jartzeko aukera. Xafilaren arabera, eta ondoren egindako proba genetikoek berretsi dutenez, Ignacio Lopetegirena zen hobi hartan ehortzitako gorpuetako bat. Ia urtebete geroago, 2023ko

otsailaren 11n egin zuten Gogora Institutuko egoitzan, Bilbon, identifikatutako gorpuzkiak haien familiei emateko ekitaldia. Hil eta 86 urtera omendu ahal izan du bere familiak gerran joandako senitartekoa, eta haren amaren alboan ehortzi dute Oikiako hilerrian.

Prozesua lehen pertsonan ezagutu du Arantza Ugarte Lopetegik (Oikia, 1951), Ignacio Lopetegiren ilobak. Kazetaria eta irakaslea izana, erretiroa hartuta dago Ugarte, eta Oikian bertan, familiaren Iparragirre baserrian jarri du hitzordua osabaren inguruan hitz egiteko.

Otsailaren 11n jaso zenituzten osabaren gorpuzkiak, Bilbon. Ekitaldi hark barrenak mugitu zizkizula esan zenidan elkarriketarako hitzordua jarri genuenean.

Asko. Denbora batean zain egon gara; DNA probak ere egin zizkiguten eta emaitza positiboa zela ziurtatu zigutenean, gorpua noiz emango ziguten zain geunden. Ekitaldia otsailaren 11n izango zela esan zigutenean, hor pentsatzen hasten zara: "hortxe dator! hortxe dator!". Ekitaldian, aretoko sarreran, Paco Etxeberria [Aranzadi zientzia elkartearen lehendakaria] topatu genuen, eta galdetu nion ea osabaren gorpuzkiak ikusterik izango ote genuen. Kaxa ireki zigun eta han ikusi genituen bere hezurak. Horrek barruak astindu zizkidan. Gero lehengusu denok elkartu



José Antonio Iriondo Echezagusia	95817	16	10,00	160,00
Antonio Echeverría Landa	74575	16	10,00	160,00
Victoriano Aracendi Aracendi	74578	16	10,00	160,00
José Zubimendi Larrañaga	74579	16	10,00	160,00
Esteban Arteche Alcoriza	74580	16	10,00	160,00
Bionatio Leoue Berriqui	74581	16	10,00	160,00
Florencio Larrazabal Jauregui	74582	16	10,00	160,00
Félix Adonza Gorrochategui	87255	16	10,00	160,00
Ascensio Aracendi Ibarra	74584	16	10,00	160,00
Francisco Gáscar Arregui	74585	16	10,00	160,00
Miguel Galarraga Aguirre	74586	16	10,00	160,00
Juan José Miguirre Goenaga	74588	16	10,00	160,00
Isidro Arquiza Guriá	74589	16	10,00	160,00
Ignacio Lopetegui Urdin	74590	16	10,00	160,00
Martín Goiburu Alcoriza	92254	16	10,00	160,00
				6.302,50

Ignacio Lopetegiren izena gerra garaiko dokumentu batean.

ginen, ekitaldira sartzeko momentua heldu zen, eta hor emozioarekin betetzen joan nintzen.

Osabaren heriotza hilberri bat bezala izan da niretzako; atzo gertatutako heriotza bat baltiz bezala bizi izan dut. Guk gorputzez ez genuen ezagutu osaba, argazkiz bakarrik ezagutzen genuen; argazki txikitxo bat, soldaduz jantzita, txapelarekin. Argazkian, txapelean G bat dauka marka bezala, eta beti esaten genuen G hori gudariarena zela. Baina inork ez zuen ezer esaten. Senitartean argazkia ateratzen genuenean, galdetzen genuenean argazkikoa nor zen, erantzuten ziguten hura "gure Inaxio" zela, "gerran galdutakoa". Hortik aurrera, ezer ere ez. Gure amak, senide guztiek, gure amonak... bizi izan zutena pentsatzen jartzen zara. Nik 9 urte nituen amona hil zenean; bere semearen gorpua berreskuratzeke esperantzarik gabe hil zen. Gure amak, gure osaba-izeba guztiek, gure amamak, inork ez du aukerarik izan bere senidearen, bere anaiaren, bere semearen gorpuari lur emateko, baina guk izango dugu aukera hori.

Zuentzako Ignacio Lopetegui argazki bat zen, militarrez jantzitako pertsona baten irudia. Denborarekin joan al zarete jakiten zein zen zuen osaba?

Presentzia bat izan da familian. Ezagutu dut berekin gerran izan zen Santos [Jose Zubimendi Larrañaga]; nire lagunena aita zen, eta gutxi gorabehera Santosek Oikian egin zuen bizitza jakinda, gure osabarena irudikatu dezaket. Baserritar bat izango zen lur hauetan: bere

ganaduairekin, bere soroarekin, bere belardiarekin, bere basoarekin. Horiek guztiak zaintzen ibiliko zen. Mutil gaztea zen, ibiliko zen erromeriatan, festan, lana bakarrik ez zuen egingo; seguruenek erromeriazalea izango zen; mutil goapoa zen, izango zuen bere gazte denbora eta bizialdia. Hori da orain irudikatzen dudana.

Gerra bat sortu zuten; eraikita zegoen eta legez aukeratuta zegoen aginte bat ez zuten onartu nahi izan batzuek, eta armekin altxatu ziren; estatu kolpe bat eman zuten. Haiek militar profesionalak ziren; gure osaba, eta gure osabaren moduan gerrara joan zirenak, haiek denak zer ziren, berriz? Baserritarak. Zer zekiten haiek gerrari buruz?

Fusil bati buruz? Instrukzio labur bat eginda joango ziren frontera, tokatu zitzaaien lekura. Gerra [1936ko] uztailen hasi zen. Gure osaba-eta zertxobait beranduago joango ziren. Uztaila, abuztua, iraila... hortik eta hurrengo urteko ekainera arte. Hori izan zen gerrako bere denbora. Hor, auskalo zer tokatu zitzaien. Bera, osaba, Artxandako bataila hartan geratu zen. Txostenean irakurri dut fusilaria zela eta albo batean zauria zuela; baita eskuan metraila zuela ere. Gero, Santosek kontatutakoa dakigu, baionetaz ireki zutela eta hor errematatu zutela. Gorpua eskuratzean hori guztia etortzen zaizu burura: akuiluarekin, aitzurrarekin eta sardearekin ibili zen pertsona bat gerran hil zutela eta, gainera, ez zutela errespetatu. Zauritu zuten, hil zuten, eta ez zuten errespetatu.

Zerk bultzatuta joango ote zen hemengo baserritar bat gerrara?

Guk diogu fusil bat hartu eta gerrara joan zela. Orduan gerrarako jende bila etortzen ziren. Garai hartarako ideologia bazegoen; eskuinekoa, ezkerrekoa, abertzalea. Gure familia beti abertzalea izan da; gure amonak lan asko egin zuen bide horretan, jendea babesten-eta. Bada, nik pentsatzen dut Oikian, beste leku batzuetan bezala, gazteak batu egin zirela eta joan zirela tokatu zitzaaien lekura. Zumaian edo Azpeitian, seguruenek, emango zuten izena gerrara joateko. Artxiiboetan begira ibili naiz, eta hemen ingurutik joandakoen artean gure osaba dago, badago Santos, *Epiola azpi*ko Joxe, badago Xanti, atzerriratu zena eta pilotari egin zena, *Torreko* Migel eta Isidro. Hemen inguruko jende asko dago. Gure osabaren batailoian hemen inguruko lau lagun agertzen dira: Santos, gure osaba Ignacio Lopetegui, eta Migel Galarraga eta Isidro Erkizia, horiek biak San Migelkoak.



Oikiako hilerrian, familiako panteoian ehortzi dituzte gorpuzkiak.

"OSABAREN HERIOTZA HILBERRI BAT BEZALA IZAN DA NIRETZAKO, ATZO HIL BALITZ BEZALA"

"OSABA NON ZEGOEN EZ JAKITEAK INPOTENTZIA ETA NAHITAEZINA SORTU ZIDAN"

"GURE OSABAK EZ ZUEN EZER IZANGO, ESKUKO XAFLA HORI BESTERIK EZ ZUEN ETA BEREKIN"

1937ko ekainean hil zuten zuen osaba Artxandan.

Ordoren, 85 urte luzez ezer ere ez, albisterik ez.

Desagertze hori nola bizi izan duzue familian?

Hutsune bat da izan da. Hildako beste anaia – zortzi anai-arreba ziren guztira –, Felix, hor dago enterratuta, Oikiako hilerrian. Baina osaba Ignacio ez da egon enterratuta Oikian. Non zegoen? Artxandan hil zela izeba batek esan zidan, berandu, izeba hil baino urtebete lehenago-edo, eta galdetu egin niolako. Gure osaba non zegoen jakiteko interesa nuen orduan. Gaztetan ez zara hain kontziente, baina zeuri ere urteak aurrera dihoazkizunean, eta zenbait gauza irakurtzen dituzunean, bizipenak entzuten dituzunean, hari eta besteari gertatutakoak; baten hezurak agertu direla nonbait, bestearenak han. Eta zeure buruari galdetzen diozu gurea non ote den; barruan hutsune handi hori duzu: "eta gurea non da?". Ez dakizu, eta ez jakite horrek sortzen dizu inpotentzia, sortzen dizu nahitaezina, nahi izanda ere ez dakizu-eta nondik hasi.

Hainbeste denbora eta gero, Gogora Institutua hasi zenean gerran hildakoen zerrenda argitaratzen, Interneten sartu nintzen osaba bilatzera, eta han agertzen zen. Gogorara idatzi nuen jarraian, neure burua aurkeztu nuen eta esan nien gure osabaren inguruko zerbait ateratzen bazen gustatuko litzaidakeela haren berri izatea. Osabaren argazkiaren kopia ere bidali nien. Gure osaba aurpegirik gabeko pertsona bat zen zerrendetan; gero, aurpegidun pertsona bihurtu zen. Hori izan zen Gogorarekin izan nuen lehen harremana. Denbora pasatzen zen eta hutsune horrek hor segitzen zuen; esperantza txikitxo bat bagenuen, baina konformatu ere egin ginen: gure osaba lista batean agertzen zen, behintzat, gerran hildako bezala. Besterik ezean, horrekin konformatu beharko genuen: argazkiarekin eta Gogorako webgunean egiten zitzaion mentzio txiki harekin.

Gero, esperantzak galtzen ari ginela, Gogora Institutuko zuzendariak, Aintzane Ezenarrok, deitu zidan esanaz gure osabaren gorpua agertu zela Begoñako hilerrian. Ezin nuen sinistu; hura bai izan zela nire barruan lehertu zen bonba bat. Nire lehenengo mugimendua izan zen telefonoa hartu eta lehengusu guztiei deitzea esanaz osaba agertu zela. Ikustekoa izan zen zer mugimendu izan zen gure arteko sareetan, eta nolako poza ekarri zuen gure barrura. Hainbestetan entzunda gure osaba galdu egin zela, halako batean agertu zitzaigun, eta hori sekulakoa izan zen.



Migel Zubimendi eta Dorotea Lopetegui ilobak, Ignacio Lopetegiren gorpuzkiak zeramatzan kaxarekin. GOGORA INSTITUTUA

Ekitaldian ere familiarteko ugari izan ziren. Osabaren gai horretan denok batera egon zarete.

Bai, bai. Bakoitzak bere bizimodua egin du. Senide guztiak daude ezkontuta, asko hemen, Oikian eta Zumaian; beste bi ahizpa Tolosaldeara joan ziren, bat Leaburura eta bestea Lizartzara; kanpoan ere baditugu familiartekoak, lehengusuak-eta. Baina mezua jaso eta berehala izan zen halako poza. Osaba ekartzean berriro elkartu beharko genuela esaten zuten batzuek. Hor berriro dena jarri zen martxan. Heriotza bat da, baina aldi berean, poza ere sentitu dugu, etxera, bere lekura dakarkizulako eta, batez ere, amamari falta zaion semea bere alboan jarriko dugulako.

Ekitaldian osaba omendu nahi izan zenuen, baina baita amama Magdalena ere. Komentatu zenuen bezala, zortzi seme-alaba zituen, eta alarguna zen semea hil zutenean. Galantak pasatuko zituen emakume hark.

Gure amama Magdalena begiz jota egon zen semea gudariekin gerrara joan zelako. Zumaian badira herritik bidalitako amak eta umeak, herritik atera zituztenak. Gure amama Magdalenari ere bide hori erakutsi zioten. Txikienarekin Zumaiaiko Zubitxikiraino joan zen.

Han, Zubitxikian, esnea ematen zion familiako semea ikusi zuen. Hark galdetu zion ea nora zihoan, eta amamak esan zion hara bertaratzeko esan ziotela, besterik ez zekiela. Besteak, itxuraz, bazekien zer gertatu behar zuen, eta esan zion: "Magdalena, segi etxera berriro zure umearekin, hemengo kontuak nik arreglatuko ditut eta". Hor libratu zuen gure amona Zumaiaiko beste talde handi harekin batera frontera bidaltzetik.

Gerraondorenean, umeengatik laguntzak ematen ziren, eta gure amonari ez zioten inoiz ezer eman. Gure amona alarguna zen, eta bere seme-alabekin atera behar izan zuen bizimodua, atera behar izan zuen bizitza aurrera. Emakume langilea zen, laguntzailea; gure amonak makina bat ume ekartzen lagundu zuen mundu honetara; erditzeetan laguntzera joaten zen. Sekula ez zituen bereizi aldekoak eta kontrakoak. Eskatzen zioten guztiei laguntzen zien gure amamak; ez ziren berdin portatu berekin gerraondorenean.

Begoñako hilerriko aurkikuntzaren berri izan zenuenean, esperantza izpi bat piztu zitzaizula esan duzu.

Bai. Osaba Artxandan hil zutela banekien, eta han hil bazuten gerta zitekeen Begoñako hilerrian

egotea. Zergatik ez? Zergatik ez gurea hor? Esperantza pizten zaizu. Gorpuak hilobitik atera zituztenean izan genuen bisitan joateko aukera, non ehortzi zituzten ikustera. Gure osaba eta besteak errespetuz ehortzi zituzten, ez nolanahi botata. Bere ingurukoek edo lagunek lur ematen zietenean, gorpuak ordenatuta ehorzten zituztela esan ziguten; etsaiek ehorzten zituztenean, aldiz, nolanahi botata geratzen zirela, edozer eratan botata. Gure osaba-eta ordenatuta zeuden; bata bestearen gainean, bai, baina ordenatuta. Aldean zeramaten guztia beraiekin zuten. Arma bakarrik kentzen zieten, berriro erabiltzeko. Gure osabak ez zuen ezer izango, eskuko txapatxo hori bakarrik agertu zelako berekin hilobiratuta. Eskuko metraila zati hori ere hor zegoen.

Txapatxo hori, xafla hori. Horri esker identifikatu dute. Txiki-txikia da. Zenbaki bat zuen. Baina agertu egin behar zuen. Historiaren erreparazio txiki hori egiteko agertu egin behar zuen, eta agertu egin da. Hori da dugun poza.

Telefono deia jaso ondorengo prozesua nola izan da? DNA laginak-eta eman beharko zenituzten, ezta?

Begoñan aurkitutako beste gorpu bat emateko ekitaldia egin zuten, eta deitu egin ziguten. Esan ziguten DNA proba egin behar genuela, eta errazena zela gizonaren adarretik doan gizonezko bati egitea. Gure lehengusuak, baserri honetako semeak, *Iparragirreko* semeak, Inaxiok –Lopetegi hura ere–, hark egin zuen proba. Gero eskatu ziguten bigarren proba bat egiteko, mitokondriala egiteko; arreba baten adarretik haren alabarena behar zen, eta proba horretarako nik eman nuen lagina. Klaro, denbora luzatu egiten da. Familian galdetzen zidaten ea noiz helduko ote zen erantzuna, eta erantzuten nien palazioko kontuak mantso joaten direla. Esaten zidaten lan askorekin zebiltzala laboratoriorian. Halako batean, mezu bat jaso nuen esanez emaitza positiboa zela eta ziurra zela gorpua osabarena zela. Gero, beste dei bat jaso genuen esanez osabaren gorpua otsailaren 11n jasoko genuela. Halako negarraldia izan nuen, baita lasaitu ederra ere. Inguruko norbait hiltzen zaizunean bezala, haren parekoa izan zen: pertsona bat denbora askoan gaixorik izan duzu, eta hil da. Hor askatzen zara, hustutzen duzu barrua, eta bizitzarekin jarraitzen duzu. ■



Baleike pertsonaia aldizkariaren zein orrialdetan dagoen ezkutatuta aurkitu behar da, eta erantzuna aldizkaria@baleike.eus e-posta helbidera bidali martxoaren 21a baino lehen.

Saria: TIPITakin bi lagunentzat gosari eder bat. Baleikeko Komunikazio Taldean bazkide izatea da baldintza bakarra.

Otsaileko Baleike aldizkarian Baleike pertsonaia non ezkutatuta zegoen asmatu behar zen: 16. orrialdean zegoen ezkutatuta, eta **Maite eta Maria Hernandez** bazkideak izan dira irabazleak.





ALDATU BEHARRA, HOBETO BIZITZEKO

MIRENE BEGIRISTAIN ETA IORITZ AIZPURU

Tokiko elikagaien kontsumoa bikoiztu egin da azken urteetan, hala diote datuek. Bertako ekoizle txikien eta horiek ekoitzitakoa kontsumitzearen aldeko apustuaren sendotasuna, ordea, ezbaian dagoela uste dute Mirene Begiristainek eta Ioritz Aizpuruk. Energiaren trantsizioa elikaduraren trantsiziorik gabe ezin dela egin ere uste dute, baina urruti ikusten duten elikadura burujabetza.

Testua: **Mailo Oiarzabal.**

Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea.**

Bertakotik elikatuz bertakoa elikatzea onuragarria ez ezik beharrezkoa, ezinbestekoa, dela sinesten dute Mirene Begiristainek (Andoain, 1972) eta Ioritz Aizpuruk (Azpeitia, 1983). Premiazkoa, krisi ekologikoaren testuinguruan, eta krisi hori eragin duten hainbat faktoreri aurre egiteko tresna ere bai. Teorikoki zein modu praktikoan ari dira ideia horren alde lanean. Ekonomian doktorea, EHUKo irakaslea eta ikertzailea da Begiristain Getariako bizilaguna, Biolurreko kide ere bai, eta elikadura sistemak dira bere ikerketan esparru nagusietakoa; Aizpuru, berriz, Azpeitiko Azoka Plazako Elikagunea saltokia kudeatzen duen Artxara kooperatibaren sortzaileetakoa eta kidea da.

Elikadura sistema irauli beharraz aritu dira parean eta pareko, baina hori erakundeen eta eragileen ausardiarik gabe eta gizartea bera eraldatu gabe nekez iritsiko dela uste dute.

Tokikoa, bertakoa, gertukoa, 0 kilometroa... Kontsumoari lotuta gero eta sarriago entzuten diren kontzeptuak dira. Zergatik da garrantzitsua horiek kontuan hartzea?

Mirene Begiristain: Ahoz aho dabil bizi dugun krisi ekologikoa, eta gure kontsumoak izugarriko inpaktua du krisi horretan. Garrantzitsua da

horretaz jabetzea, gure eguneroko kontsumoak, eta tartean elikagaiek, izugarrizko garrantzia dutela krisi ekologikoan. Izan ere, egun jaten dugunaren %95 baino gehiago kanpotik dator, eta milaka eta milaka kilometro egiten dituzte elikagaiek. Zentzu horretan, tokikoa kontsumitzearen garrantziaren zergatia da geure bizitzak hobetzea, eta bertako produktuekin sortzen dugu aukera hori.

Ioritz Aizpuru: Krisi ekologikoa, krisi energetikoa bolo-bolo dabilzan honetan, elikadura burujabetza edo bertako produktuen kontsumoa agente politiko eta sozial denek agendan gorritz jarri beharreko kontzeptuak eta apustuak direla iruditzen zait, esku artean ditugun arazo horiei irtenbidea emateko gakoetako bat direlako.

Eta ari al gara kontuan hartzen? Antzematen al da kontzientzia aldaketarik?

M.B.: Bai, sumatzen da. Kontzientzia handitu da, eta hori datuetan ikusten da, gainera. Tokiko produktuen kontsumoa bikoiztu egin da azken urteetan. Aztertzekoa da zer faktorek bultzatzen duten horretara. Badakigu printzipala ez dela guk aipatu dugun arrazoia. Faktore kolektiboak, krisi ekologikoa eta, ez dira arrazoi nagusiak. Faktore indibidualak dira, gehien bat, aldaketa bultzatu dutenak: osasuna, norberaren ongizatea... Dena dela, datuek erakusten dute gora egin duela tokiko produktuen kontsumoak, eta ikusi besterik ez dago saltoki handietan bertako produktuek eta produktu ekologikoei zer-nolako presentzia hartu duten; eta horrela gertatu da saltoki handi horiek merkatu-hobia ikusi dutelako hor. Hala ere, proportzioa oso txikia da. Gainera, kontuan hartu behar da elikagaiei gure errentaren %15 eskaintzen diegula; beste partida batzuek, etxebizitzak eta garraioak, garrantzi handia hartu dute azken urteetan. Azken hamarkadetan erdira jaitsi da gure errentatik elikagaiei eskaintzen diegun kopurua. Beraz, badago kontzientzia handitze bat, badaude horretan positiboki eragiten ari diren faktoreak, eta tokikoa eta ekologikoa merkatu produktu bihurtu dira; baina, aldi berean, errentan elikagaiei eskaintzen diegun garrantzia ez da handitu.

I.A.: Kontzientzia aldaketa horren adierazle dira herriz herri edo eskualdez eskualde bertako produktuak sustatzeko sortzen ari diren proiektuak ere.

Mirenek komentatu bezala, nabaria da supermerkatu handietan bertako produktuen edota produktu ekologikoen presentzia gero eta handiagoa dela. Baina produktuen presentzia bera baino areago, nabarmenduko nuke azalera handiko saltokiek nola baliatzen dituzten produktu horiek publizitatea egiteko; amu gisa erabiltzen dituzte, jabetu direlako herritarrek kontzientziazten ari direla. Beste kontu bat da bertako produktuen aldeko apustua benetan egiten duten ala ez.

M.B.: Bai, nabarmena da ez dela gauza bera. Ez da bakarrik zer erosten dugun, baita non erosten dugun ere; eta horrek izugarrizko garrantzia dauka, elikadura burujabetzarekin zerikusi handia dauka. Gure euro bakoitza non jartzen dugun, ekonomia noren eskutan uzten dugun, garrantzitsua da. Energiarekin bezala, ikusi behar dugu zer trantsizio egin nahi dugun elikadurarekin. Tokiko proiektuek izugarrizko garrantzia dute erabakigune gisa ere, ez baita bakarrik zer produktu eskaintzen diren, baizik eta zer eraikitzen den, zer ekonomia eraikitzen dugun horrekin.

Tokiko ekoizle txikiak eta kontsumitzaileak gerturatzeko hainbat saiakera egiten ari dira: kontsumo taldeak, azokak biziberritzeko proiektuak... Kontzientzia duen edo hartzen ari den jendearengana iristen dira horrelakoak, baina publiko orokorrarengana iristeko lana egiten al da? Zer bide jorratzen dira edota jorra daitezke?

I.A.: Uste dut hor sentsibilizazio lan handi bat dagoela egiteko, lehen aipatu dugun larrialdi ekologikoari aurre egiteko edota bertako ekonomia sustatzen duela azpimarratzeko. Hainbeste maite dugun Euskal Herri berde hori, mendiak, soroak... Jendea kontziente izan behar da lehen sektorerik gabe gure ingurumena ez dela bera izango. Era berean, kontziente izan behar dugu gure platerean jartzen dugunak zer eragin daukan esparru desberdinetan. Niretzat, gakoetako bat litzateke hezkuntzan apustua egitea.

M.B.: Landa eremua jaten dugunaren, gure elikadura sistemaren ispilua da, azken finean. Uleratu behar da dena dagoela elkar lotuta, ikuspegi integrala edukitzea oso garrantzitsua da. Nolako elikadura, halako nekazaritza esaten da. Hezkuntza da gakoetako bat, eta gatazka handia dago



Begiristain eta Aizpuru, Azpeitiko Zelai Luzen.

"Egun jaten dugunaren %95 baino gehiago kanpotik dator, milaka kilometro egiten dituzte elikagaiek"

"Euro bakoitza non jartzen dugun, ekonomia noren eskuetan uzten dugun, garrantzitsua da"

"Energiaren trantsizioa elikaduraren trantsizioarekin batera pentsatu behar da"

Mirene Begiristain

uneotan eskola jantokien gaiarekin. Eskola jantokiek bertako produktuekin lan egin ahal izatea ahalbidetuko duen Eusko Jaurlaritzaren dekretuaren zain gaude urteetan. Gure Platera Gure Aukerak izugarrizko lana egin du azken urteetan, proiektu pilotuak ere badira martxan, baina ez da lortzen hori orokortzea. Eta funtsezkoa da, eta erosketa publikoarekin lotuta joan behar du. Landa eremua askotan erabiltzen da folklore kutsuarekin, baina egin daitezke gauzak politika publikoetatik, eta eskola jantokiak eta erosketa publikoak tresna oso indartsua dira zentzu horretan. Horiez gain, eta Biolurren ari gara horretan lanean, baserritarrentzat ekoizpen duina eta kontsumo herrikoia garatu behar dira. Hau da, ezin da izan elikagai ekologikoak eta osasuntsuak pribilegio bat izatea; eskubide kolektibo bat dira. Garrantzitsuak dira norberak elikagaiekin lotuta hartu beharreko erabakiak, baina era berean, elikagai horiek eskuragarriak izan behar dira, eta gaur egun ez da horrela.

Ekoizleak eta kontsumitzaileak gerturatzeko aipatutako egitasmoetako bat da Elikagunea. Bost urte bete berri ditu Azpeitiko Azoka Plaza berrituan txertatutako proiektuak. Zer balantze egiten duzue orain artekoaz?

I.A.: Balorazioa positiboa da. Egia esan, beldurrarekin hasi ginen: proiektu berria zen, antzeko beste esperientzia batzuk ezagutzen genituen, baina ez Elikagunearen berezitasunak zituenik; baserritarren plaza batean sartu behar genuen... Baina lehen egunetik eskuak zabalik hartu gintuzten, bai baserritarrek, bai herritarrek, laguntzeko prest, gainera. Laguntasun eta elkarlan horri esker egin dezakegu bost urteon balorazio positiboa. Hiru langilek ekin genion bideari, eta gaur egun zortzik osatzen dugu lantaldea, 400 familia bazkide dira kooperatiban eta 150 bat ekoizleren produktuak eskaintzen ditugu. Beraz, uste dugu aurrera begira apustu berriei heltzeko oinarria behintzat jarri dugula.

Zer jaso duzue azokako ekoizleen partetik? Antzeman al dute alderik haiek?

I.A.: Elkar elikatzen dugula ulertzen dugu guk. Herritarrek azokan aurkitu ezin dituzten zenbait produktu eskaintzen ditugu Elikagunean, horrela beren erosketak osatzeko aukera dute haiek,

eta modu horretan jendearen joan-etorria ere handiagoa da Azoka Plazan. Bestetik, baserritarrek aukera dute azokan ez dauden egunetan ere beren produktuak Elikagunean eskaintzeko. Urte hauetan ikusi ditugu beren ekoizpena egokitu edo handitu duten ekoizleak; edota produktu berriak lantzen hasi direnak, eskaera bazegoela antzemanda. Gauza horiek dira, benetan, gure proiektuari zentzua ematen diotenak, eta guri lanean segitzeko ilusioa eta indarra ematen digutenak. Esan dezakegu familia bat osatu dugula.

Azoka tradizionalek asko pairatu dute kontsumo ohituren eta bizi baldintzen aldaketa. Ekoizleek garatu al dituzte ohitura berrietara egokitzeko tresnak? Edo, zer tresna beharko lituzkete?

I.A.: Azpeitiko gure esperientziatik, ikusi dut baserritarren eta ekoizleen partetik garai eta ohitura berrietara egokitzeko prestutasuna. Beren produktuak Elikagunean saltzen hasteko proposamena egin zitzaizenean zein Enkarguk proiektua martxan jarri zenean, prestutasuna izan dute baserritarrek. Baina denok bezala, laguntza eta bultzada behar dituzte ohitura berrietara egokitzeko.

M.B.: Izan ere, azokek izugarritzko eragin ekonomikoa eta soziala dutela iruditzen zait. Azpeitian ikusten da, eta Tolosan ere ikusten dela uste dut: azoka bete egin da, ez da bakarrik eraikin bat egin edo azpiegitura bat berritu dela, prozesu sozial bat eman behar da, eta Azpeitikoa nabarmena izan da. Horrek erakusten du azokak espazio biziak direla, eta landu egin behar dela berak [loritzek] aipatzen zuen hori guztia. Uste dut baserritarrek egokitu direla, ez bakarrik teknologia berrietara, baita produktuen eskaintzari dagokionez ere. Kontsumo ohiturak aldatzen dihoazela ikusi dute eta produktu berriak eskaintzen dituzte. Baina, era berean, ikusten da azoketako batez besteko adina zein den; Gipuzkoako azoken azterketa bat egin genuen eta bailara guztietako azoketan ikusten da, landa eremuaren ispilua da hori ere. Gai konplexua da, baina azokak biziberritu nahi baldin baditugu, landa eremua biziberritu behar dugu. Azoka oso espazio politiko eta kultural garrantzitsua dela

iruditzen zait, eta asko daukagula ikasteko, adibidez, Azpeitiko prozesutik.

Bakoitzak zeuen esperientziatik ikusita, zein dira gaur egun lehen sektoreko ekoizle txikien zailtasun nagusienak?

M.B.: Motzean esateko asko dira. Lehen esan dudan moduan, uste dut horrelakoetan interesgarria dela elikadura sistemari bere osotasunean begiratzea, gauzak elkar lotuta daudelako, zer arazo sortzen diren eta arazoak nola elkar elikatzen diren. Hala ere, baserritarren arazoez ari garenean badaude bi edo hiru gako. Lan baldintzak dira horietako bat. Baserritarren lan baldintzak prekarioak dira, oso zailak. Izan ere, baserritarrena ez da bakarrik lanbide bat, bizimodu bat da, bizimodu horrek izugarritzko garrantzia dauka gizartearentzat, eta horrek duen balioa ez da kontuan hartzen. Lan baldintza duinak sortzea oso-oso garrantzitsua da, behar den erreleboari heldu nahi badiogu. Urola Kostan, azken urteetan, ia ehun baserri edo ustiategi itxi dira.

Asko dira, ezta?

M.B.: Asko dira, baina beste hainbat eskualdetan gertatzen ari den gauza bera da. Erreleboari eusteko, lan baldintzak hobetu egin behar dira, eta gai horrek estrategikoa izan behar du politika publikoetan. Emakume baserritarren egoera espezifiko ere ezin da ahaztu. Genero ikuspegitik, baldintzak are zaurgarriagoak dira emakumeen kasuan. Lan eremu maskulinizatua da, eta rolek eta estereotipoek asko markatzen dute emakume batek landa eremuan ekoizpen proiektu bat martxan jarri nahi duenean. Baserri edo ekoizpen proiektu batean norbaitek kotizatu izan badu gizonetzkoa izan da, emakume asko jubilazio eskubiderik gabe geratu dira. Bestetik, Ticket Bai denon ahotan dabilen honetan, uste dut garrantzitsua dela burokratizazioak baserritarrei eragiten dizkien zailtasunak aipatzea. Ez da posible baserritarrei eta ekoizleei behin eta berriz horrenbeste oztopo iristea administrazioetatik goitik behera, digitalizazioak horrenbeste konplikatzeko beren egunerokoa.

I.A.: Elkarrizketa honetara etorri aurretik ekoizle bati galdetu diot, "zailtasunen inguruan eta, zer aipatuko huke?", eta "papeleoa" izan da



"Jendea kontzientze izan behar da lehen sektorerik gabe gure ingurumena ez dela berdina izango"

"Ikusi dut baserritarren eta ekoizleen partetik garai berrietara egokitzeko prestutasuna"

"Proiektuak bideragarri egiten ditugu, baina ez dakit zenbateraino egiten ditugun bizigarri"

Ioritz Aizpuru

haren erantzuna. Lan baldintzen gaiari eutsiz, zaharkituta dago lehen sektorea, batez besteko adina ia 60 urtekoa da. Gazteak sektore-
ra erakartzeko, nik beti esaten dut lehendabi-
zi lehendik dauden ekoizleen lan baldintzak
hobetu behar direla, horrela erakarriko dugu-
la jendea. Izan ere, proiektuak bideragarri
egiten dira, baina ez dakit zenbateraino egiten
diren bizigarri. Uste dut badagoela zeregina,
eta baldintza horien hobekuntzaren ondorioz
lortuko dugula erreleboa sektorean.

M.B.: Gainera, gizartea aldatzen ari da, eta
aldatu egin da gazte batek bere bizitza nola
eraiki nahi duen ere. Lehen sektoreari dirula-
guntza asko ematen zaiola esaten da, baina
dirulaguntza gehienak ustiategi handientzat
izaten dira, ez baserritar txikientzat, nahiz eta
txikiak diren gehiengo; eta bizi baldintza
hobeak sortzen laguntzen du diruak. Horrez
gain, behar dituzten bestelako azpiegiturak,
lan burokratikoak, osasungintzako baldintzak...
ekoizle txikien beharretara egokitu beharko
lirateke. Gauza asko egin daitezke lan baldin-
tzak errazteko.

Eta horiek egiteko borondaterik ba al da administrazioetan?

M.B.: Orokorrean gutxi, esango nuke. Udale-
rriek ez dute konpetentzia askorik lehen sek-
toreari lotuta gai horietan.

I.A.: Eta beste erakundeekin alderatuta, bai
ikusten dela borondate gehiago herri maila-
koetan. Orain arte aipatu ditugun proiektuak,
Elikagunea eta Azoka Plaza Azpeitian, adibidez,
udalaren, eragileen eta ekoizleen arteko el-
karlanari esker gauzatu dira. Baina Mirenek
esan duen bezala, eskumen asko ez daude
udalen esku, eta beste maila horietan boron-
date gutxiago dago.

M.B.: Eta asko egin daiteke, Euskal Herrian
badaudelako konpetentziak aldundien edo
Eusko Jaurlaritzaren esku. Adibidez, lehen
aipatu dugun eskola jantokien gaian, edo
osasun baldintzetan, burokratizazioaren ingu-
rukoetan, kontsumoaren kontzientziari lotuta-
koetan... gauza asko egin daitezke.

I.A.: Eta lurrak lortzeko dauden zailtasunetan
sartzen bagara... Beste ordu batzuetarako
izango genuke elkarriketa.



M.B.: Arazo larria da hori, bai. Gazteek lurra eskuratzeko dituzten zailtasunak izaten dira arazo handienetakoa.

Elikagaietan ere, ia mundu osoko produktuak daude eskura, eta askotan hemengoak baino merkeago. Nola egin aurre horri?

M.B.: Ekoizle txikiek asko landu dute autonomia, eta hori alde dute. Ez dute ekoizle handiek, bereziki eredu industrializatuagoa dutenek, intsumoekiko duten dependentzia, eta asko laguntzen die horrek. Analisiren bat egin da horren gainean, eta ikusi da krisiaren ondorioz gehiago parekatu direla produktu ekologikoen eta konbentzionalen prezioak. Tokikoa eta zuzeneko erosketak, uste dut hori dela kontsumitzaileak duen bidea.

I.A.: Hori da. Merkaturatze bide laburrak erabiltzea da gakoa, zuzeneko salmenta azoka edota kontsumo taldeen bitartez edota Elikagunearen gisa ahalik eta bitartekari gutxien erabiltzen dituzten proiektuen bitartez. Bestetik, askotan ez gara kontziente munduaren beste puntatik iritsi eta merkeago diren produktu horiek zenbat bitartekari dituzten tartean, eta bestaldeko puntan dagoen ekoizleak zuk ordaindu duzun prezio horretatik zer parte txiki jaso duen. Askotan ez gara kontzientze produktu horiek erosten ditugunean eragiten dugunaz: kutsadura, ekoizlearen lan baldintzak...

M.B.: Emakume baserritar batek esaten zidan: "Merke? Nik uste garesti irteten ari zaigula". Ez dira kontuan hartzen beste lurraldeetako baserritarren, ingurumenean eta gurean, gure osasunean, zer inpaktu eragiten diren. Jaten dugunak osasunarekin ere lotura zuzena du, izan ere. Beraz, merke? Garesti irteten ari zaigu, epe luzean.

Elikadura burujabetza bada helburua, egungo abiapuntutik, zer pauso eman behar dira ezinbestean epe motz-ertainean?

I.A.: Erakundeek zein eragile sozialek erabaki ausartak hartu behar dituzte, eta pausoak eman, bai kontsumoan, bai ekoizpenean. Horrek eskatzen du ekoizleen aldeko apustua egitea, ekoizleei erraztasunak ematea, lehen-dik dauden ekoizleen baldintzak hobetzeko eta ekoizle berriak erakartzeko. Bertako produktuen kontsumoa sustatuko duten politikak jarri behar dira martxan. Mila gauza daude egiteko.

M.B.: Elikadura burujabetza hitz potoloa da. Izan ere, gauza bat da bertakoa jatea, eta beste bat elikadura burujabetza. Autonomia izatea da kontua, eta landu dezakegu bertako produktuarekin autonomia; baina beste kontu bat da hartzen diren erabakien gainean zenbaterainoko kontrola duen herriak. Hori da elikadura burujabetza, geuk erabakitzea noiz, non eta nola ekoizten den, eta horrekin sortzen den balioa non gelditzen den. Eta hori oso urruti daukagu. Baina, lortzek esaten zuen moduan, estrategia bat landu behar da; zerbait falta badugu horixe da, estrategia bat. Egitasmoak sortzen eta garatzen dira, baina halako akupuntura moduko bat dira, ez dago epe luzerako planifikaziorik. Energiaren trantsizioa elikaduraren trantsizioarekin batera pentsatu behar da, lurraldearen planifikazioak zutabe bat izan behar du.

I.A.: Elikaduraz ari garenean, oinarritzko gauza batez ari gara. Herri gisa elikadura sistema bat definitzeko eta erabakitzeko gai ez bagara, zer erabaki behar dugu, zer jan eta nola ekoiztu erabakitzeko gai ez bagara?

Estrategia aipatuta, 2030erako Euskadiko elikadura sistema iraunkorrerako lerketa eta Berrikuntza Estrategia osatu dute hain-



bat erakundek eta eragilek, eta lanketa hori gidatu dutenetako bat zara zu, Mirene.

M.B.: Hainbat eragilerekin Europa mailako proiektu batean parte hartzeko aukera izan genuen. Ikerketaren emaitzak Europako Batzordera iritsi ziren eta han bazegoen aditu talde bat. Hemengo lantaldearen emaitzen ondorio nagusietako bat errepikatu zuen aipatutako aditu taldeak: korapilo handiena ez da teknologikoa, ezta ekologikoa ere, korapilo handiena soziala da; berrikuntza sozialean dago gakoa. Horretaz jabetzea garrantzitsua da. Bestela, ematen du krisi honetatik teknologiak salbatuko gaituela, eta tentazioa ederra da, berdin jarraitzeko eta ezer ez aldatzeko. Baina aldaketak gure antolaketa sozialetik etorri beharko du.

Bertakotik elikatzeak zer ematen dio gizarteari?

I.A.: Osasuna, ingurumena, herri gisa nortasuna... Gure elikadura sistemak, zeharka, horietan guztietan eragiten duela esango nuke. Mila arrazoi daude bertako produktuak kontsumitzeko, eta mila arrazoi dauden neurri berean, mila onura eskaintzen dizkio gizarteari bertakoa kontsumitzeak.

M.B.: Hobeto bizitzea. Garai konplikatuak dira, kezka, beldurrez eta ezjakintasunez beteta bizi garela ematen du, erabakiak hartzeko beldurrez, dauzkagun pribilegioak galduko ote ditugun. Baina ausardia aipatzen zuen



loritzek, eta uste dut hobeto bizitzeko aukera bat eraikitzea dakarrela bertatik elikatzeak. Hobeto bizi gaitzke deshazkunde logika horretan; beste era batera, baina hobeto. ■



Ikusi eskusiban Mirene Begiristani eta loritz Aizpururi egindako elkarrizketa QR kodea eskaneatuta.

**URRUTIRA
JOAN
GABE**

**BEIZAMATIK
URRAKIRA**

PUBLIZITATEA

ekin
elektrikitate, s.l.

Erribera kalea, 6 20750 Zumaia tel. 943-14 30 97
ekin@ekinl.com www.eekinl.com

**Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet**

mara **MÁSMÓV.L**

**ERNIO
TABERNA**

V. Arrate, 3 Tel. 943-86 00 45

Garaa

Carlos Cintero / Ainhoa Olaizola
tel.: 943 86 21 81
Txomin Agirre, s/n
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

GLENCOE
INGLES AKADEMIA

TALDE MURRIZTUAK

Zunbilo kalea, 12 beheha
tel. 670 39 17 77
matrikulazioa dohainiki!

Ikastegi homologatua

Golden Gate
institute
hizkuntz eskola

Erribera kalea 1 bis, beheha
tel./faxa 943-86 50 20
info@goldengateinstitute.com

Gure Txokoa
taberna

Upela plaza, 4
20750 Zumaia
Tel.: 943 86 09 70

Harvest
English School

...eta udaran Ingalaterrara Ingelesa praktikatzera
www.academiaharvest.com

San Jose, 11 bis tel. 943-14 33 34

ilarzi

Alai auzategia, 2
Tel. 943-24 50 20

**INPERNUPE
ELKARTEA**

Erribera kalea 16. Tel. 943-86 15 23

Irlondo optika
Optometria - audio zentroa

Kantauri plaza, 8. Zumaia. tel.: 943-86 04 86
Nagusia, 53. Azkoitia. tel.: 943-85 19 84

IRUDI OTS

Ikuskizun orotarako soinu
eta argiztapen alokalirua
Hots eta irudigintza aretoa
tel. 943-63 16 32 irudiots@irudiots.com

IRUITZ
ileapaindegia

Analisi kapilarrak eta
tratamendu
personalizatuak

San Telmo12 943-86 07 60

**ORRAZTEGI
ZUMAI**

943-86 20 83

KABI
Patxeta Etxezarreta, 15
943-11 74 27

TABERNA

Kaithermik S.L.

Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943-86 03 20

JUARISTI
jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10 tel. 943-05 05 77

MAIAUR
ZUMAIA

Julio Beobide, 2 • Tel. 943 862 269

Feminismoan hazi eta hezi, ez dugu beste biderik



MIREIA CENTENO

PSIKOLOGOA

Guztiok ez ditugu tresna berdinak eta ezagutza maila bera, baina guztiok dugu ardura eta gaitasuna gure egunerokotasunean kontzientzia hartzeko eta gure haurrei feminismoaren oinarriak eskaintzeko. Ezinezkoa da gure haurrak kultura patriarkaletik at heztea guztiz inguratuta gaudenean. Nahi gabe, gure seme-alabei balio sexistak transmititzen dizkiegu eta, gainera, familia ez da haurraren testuinguru bakarra, eta ezin dugu dena kontrolatu. Hala ere, horrek ez digu galarazten guztion artean hezkuntza feministago bat lantzea eta lortzea.

Eta guztion artean diot, komunitatearen ardura delako. Horregatik, nola transmititu dezakegu feminismoa gurasotasunetik?

Errua ezabatu behar dugu. Batez ere amaren errua: titia eman edo ez emateagatik, lana egin edo ez egiteagatik, haurrarekin haserretzeagatik... Ez da erraza, emakumea gizarte honetan beti delako errudun eta amaren ekintza guztiak epaitzen direlako. Gauzak ondo ez egitearen beldur gara eta horrek,

askotan, amatasun sakrifkatuak bizitzera eramaten gaitu. Noski, gure ekintzen ardura guk daukagu eta hori ez dugu ahaztu behar, baina gogoratu erruaren pisua ez dela emakumearena.

Zaintzak partekatua edo onartua izan behar du. Familia bakoitzak erabakiko du zein den beraientzako formula egokiena, baina zaintza partekatua eskubide bat da eta hortik abiatu behar gara. Abiapuntua hori bada, aukeratzeko eskubidea izango dugu, eta neurriko zaintza bat eraiki ahalko dugu. Horrela bakarrik sentituko gara libre gure seme-alaben hazkuntzan. Hau guztia kontuan hartuta, konturatuko gara feminismoan heztea ez dela bakarkako lan bat, eta gizarte guztiak inplikatu behar duela zaintzan; bakoitzak bere lekutik, noski, haurrak hazteko tribua behar dugulako, eta gaur egungo gizarte kapitalista eta individualista honetan, tribu izatetik urruti gaudelako.

Natura lehenetsi jolas toki bezala. Naturak ez du bereizten generoa, natura ez da sexista, eta bertan ez dira mezu sexistak existitzen. Naturak ez du epaitzen, eta jolas librea bultzatzen du zentzu guztietan.

Haurren arteko bortizkeria salatu behar dugu, batez ere neskek jasaten dutena. Kaletik irainduak izatea, taldean jarraituak izatea, baimenik gabe musuak ematea eta gona altxatzea. Horrelako jarrerak oraindik maiz ikusten dira eskola testuinguruan, eta eskolatik kanpoko denbora librean. Gogoratu helduen artean onartzen ez ditugun jarrerak haurren artean ere ezin ditugula onartu.

Eta, noski, sexismoa eta genero rolak hor daudela onartu eta hauek ezabatu behar ditugu. Neska batek nahi duen guztia amestu eta egin dezake, bihurria izan daiteke, eta gustuko duena eta ez duena azaldu dezake. Neska batek ez du garbi joan behar neska izateagatik. Mutil batek negar egin dezake, dantzatu eta arrosa koloreko arropak eraman ditzake, eta emozioek, jolasek eta jostailuek ez dute generorik. ■





Irudi engainagarriak



Hamar txatal hauen artetik erdiak (5) irudi nagusitik hartuta daude eta beste erdiak ez. Bereiz itzazu.

Sudokua

Z		H		K	
	I			Z	H
A		I			
	H		I		T
	K			T	
H			K		A

Liburuetan HITZAK aurkitzen dira, ezta? Bete hutsuneak hitz hori osatzen duten hizkiak (H, I, T, Z, A eta K) toki egokian jarri. Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.



ALdea dago!

Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. 13 dira guztira.





NORK ZER

Gure laguntxoek liburu bana irakurri nahi dute. Zein hautatuko du bakoitzak?



HANDIENETIK TXIKIENERA

Lagundu bikote honi bere liburuak apalean ordenatzen. Handienari 1 zenbakia eman eta txikienari 9. Bide batez, beheko irudia margotu.



Soluzioak ikusteko: www.plazanbazan.eus/

Beauty

ARGAZKIA ETA TESTUA: EVA FRANCO

MODELOA: TELMO IRURETA

Bazen behin sirena bat, ekaitz izugarri baten ondoren errealitatez liluratutako baso batean harrapatuta geratu zena. Esnatzean, hiru begiko beleari galdetu zion: "Buztana galdu dudanez gero, ibili ahal izango ote naiz?" Beleak erantzun zion: "Ezingo duzu ibili, baina hegan egin bai". Eta ezinezkoa zela ez zekienez, hala egin zuen... Sasi guztien gainetik eta hodei guztien azpitik. ■





CROISSANTERIA



pizzak
hanburgesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943-86 22 46

maximus **PENCIL**
estudio decoración



Julio Beobide, 2 - ZUMAIA
699 49 52 56
maximuspencil@gmail.com
Deitu edo zertarako, aurretiko hitzorduekin egiten dut lan



MENDI - ONDO S.L.
Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943-86 00 74 - 943-86 15 69
mendi-ondo@mendi-ondo.com www.mendi-ondo.com



NOIA S.L.
**TAILERRAK ETA
KARROZERIAK**

Etengabeko garabi zerbitzua **636 86 78 12 (Zumaia)**
609 83 44 38 (Itziar-Deba)

Hego kalea, B3 (Estazioan)
20750 - Zumaia
Tel.: 943-86 13 63
zumaia@carroceriasnoia.com

Itziar indutrigunea, C
20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943-60 62 91
noia@carroceriasnoia.com

www.carroceriasnoia.com



OREKA
KIROPRAKTIKA

Aita Mari, 17 behe - Zumaia
943-02 04 77
info@orekakiropraktika.com @oreka.kiropraktika

OSA
BERNIZATUAK

**Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea**

Estazioko kalea, 12 · tel. 943-86 14 12 · 686 36 41 49



OSTOLAZA
OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.

Joxe Mari Kortia Indutrigunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943-86 50 88 • Faxa 943-86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: ostola@ostolaza.com

Ostolaza
altzariak

Tel/Fax: 943-86 13 25
Julio Beobide Ibiltoia, 1 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net / www.mueblesostolaza.com



SOLOZABAL
autoeskolak


Etkezaretan, 19 • 943-861416
zumaia@solozabalautoeskolak.com

Talaira
taberna · jatetxea



Santiago auzoa, 4 Tel. 943-14 33 70

Tapaia
taberna



Embera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943-86 19 73

ITAKUN TABERNA



ITAKUN Izustari, 3
tel. 943-86 52 89

TXIMISTA
garagardotegia

Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Txerri-ukondoak (kodilloak)
Salbitzak, oilaskoak...
Garagardoak aukeran

Ondartza plaza, 4 behe - Tel. 943 573 905



UKENDU
**PARABOTIKA
BELARDENDA**
Aitziber Etxeberria Garro
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943-86 09 92 www.ukendu.com

UZKUDUN
taberna



Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 - 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel.: 943-11 63 97

yoana
ileapaindegia



Amaia plaza,
2 behe
943-14 32 78

Zalla



• plater konbinatuak
• ogitartekoak
• oilasko erreak

Urola Plaza 3 • 943-86 23 87 ZUMAIA

Mediku eta botikari euskaldunak

TESTUA: IMANOL AZKUE IBARBIA

@ImanolAzkue

ILUSTRAZIOA: DANIEL CARBALLO

OSTOLAZA

Ziria sartu nahi izaten digute gezurrezko eztabaida planteatuta, ezinezkoa balitz bezala mediku ona eta euskalduna izatea, baina auzia ez da atzo goizekoa, paperetan egiazta dezakegunez. Lehen, ordea, arrazoi gehiagorekin eta fundamentu handiagoarekin eskatzen zituzten mediku euskaldunak: gu, herrenka eta lotsatuta bada ere, erdaraz moldatzeko gai gara, osagile erdaldunaren aurrean azalpenak emateko; lehengo zumaia gehien-gehienek, ordea, ez zekiten gaztelaniaz, eta nola azaldu zer gertatzen zitzaien edo nongo mina zeukaten sendagile erdaldunari? Nahita ere, ezin.

Lehen ere azaldu nuen *Baleiken*¹ Zumaiaiko lehen medikuarena, baina bidezkoa iruditu zait laburtuta hona ekartzea, oso adibide argigarria delako azaltzeko Zumaia zenbateraino zen euskalduna 1850 inguruan. 1855ean, Zumaiaiko Udalak erabaki zuen medikuaren eta botikariaren plazak ateratzea, eta iragarkian, baldintzetan, Eusebio Gurrutxaga alkateak argi eta garbi adierazi zuen biek euskaraz jakin beharra: "advirtiendo que ambos

profesores deberán **poseer el idioma vascongado**"². Baina Zumaia ez zen izan herri bakarra; izan ere, garai bertsuan, antzeko lanpostuetarako, beste iragarki batzuetan ere halaxe eskatzen zutelako beste batzuek ere, adibidez, Lesakan, zirujaua ("en concepto de que deberán **poseer el idioma vascongado**"³); Angiozarren, zirujaua ("los aspirantes deberán **saber el idioma vascongado**"⁴); Anoetan, zirujaua ("Los aspirantes que precisamente deberán **saber el idioma vascongado**"⁵); Getarian, mediku zirujaua ("advirtiendo que el profesor deberá **poseer el idioma vascongado**"⁶)...

Zumaiako mediku plaza hura betetzeko, 1856an, bi hautagai zeuzkaten aukeran zinegotziek: Manuel de Pedraza eta Toribio Ibaseta. Hautatzeko bozketa eginda, berdinduta geratu ziren biak, eta Udalak txostenak eskatu zizkion Gorteko Unibertsitate Zentraleko errektoreari Pedrazaren eta Ibasetaren ikasketen gainean, baita hark bidali ere: "las notas de ambos pretendientes son buenas, pero preferibles las del Señor Pedraza"⁷; gainera, alkatearen ustez, kontuan hartu beharra zegoen eskarmentua: Pedrazak hamalau urte zeramatzan lanean; Ibaseta, berriz, hasi berria zen. Horretan

LEHEN ARRAZOI
GEHIAGOREKIN
ESKATZEN ZITUZTEN
MEDIKU
EUSKALDUNAK

ez zeuden ados zinegotzi guztiak, ordea, eta berriz ere bozketa eginda, atzera berdinduta geratu ziren, bi eta bi. Horregatik, zirt edo zart egiteko, erabaki zuten gaia herriko handixkiekin ("mayores pudientes") egiten zuten bilerara eramatea, eta han erabakitzea.

Handixkiak elkartuta, Eusebio Gurrutxaga alkateak Pedrazaren alde egin zuen garbi, nota hobeak eta eskarmentu handiagoa zeuzkalako. Orduan, hitza hartu zuen Sebastian Gartxotenea zinegotzi oikiarrak, eta azaldu zergatik zegoen hain kaskagoror Ibasetaren alde: "espuso que aunque el Señor Pedraza fuese preferido por la Universidad y tenía más práctica que el Señor de Ibaseta en su concepto este debía ser preferido **por cuanto posee el idioma vascongado**"⁸. Ez zen izan bakarra, gainera: bozketa eginik, zortzik egin zuten Ibasetaren alde eta seik Pedrazaren alde, eta, beraz, gehiengoak hala erabakita, Ibaseta hautatu zuten; horrela, euskalduna izan zen gure herriko lehen mediku zirujaua. Harrezkero, Zumaiako Udalak horrelako lanpostu bat (medikua, zirujaua, albaitaria, praktikantea...) atera eta bete behar izan duenean, (ia) beti berariaz kontuan hartu izan du hizkuntzaren gaia, batzuetan euskararen ezagutza baldintzetan propio adierazita.


Baina *argituko* dugu hori hurrengo batean, gaiari berariaz helduta...

Lehen medikuarenarekin batera, 1856an, botikari plaza ere atera zuten, eta botikariak oso helduleku ona emango digu, gainera, hariari tira eta euskararen aztarnak ikusteko. Izan ere, medikuari bezala, botikariari ere ordaindu egin behar zitzaion, zumaiar dirudun bakoitzak hainbesteko bat, eta ordainparteak jasota daude 1856ko eta 1857ko pare bat dokumentutan, "Lista para la derrama del boticario"⁹ izeneko ordainpartearen zerrendetan. Horietan, idatzita daude Zumaiako etxeen izenak eta zein bizi zen bakoitzean, eta dokumentua gaztelaniaz egonagatik, etxeen izenetan garbi ikusten da euskaraz izendatzen zituztela zumaiarrek: **Palaciocoa, Indianocoa, Juanmarienea, Hospitalecoa, Marquescoa, Beduacoa, Frailetacoa, Chiliocoa, Capitanenea...**; baita Oikiakoak ere: **Vicarioechea, Condecoa, Lorecoa, Lasalde, Jesuscoa...** Medikuen ordainparteekin ere antzeko zerrendak daude, euskarazko izenekin, eta etxe eta baserri horietako askok zutik jarraitzen dute, gainera.

Beste adibide garbi bat ekarriko dugu. 1878an, Jose Manuel Fuentes zegoen mediku gure herrian, eta kexa egin zuen Zumaiako Udalaren aurrean,

BOTIKARIARI ERE ORDAINDU BEHAR ZITZAION, ZUMAIAR DIRUDUN BAKOITZAK HAINBESTEKO BAT





pobreen zerrendan sartutako batzuek berez ez zutelako han egon behar; izan ere, medikua behar zutenean, zerrenda horretakoek ez zioten ordaintzen medikuari, eta osagileak ikusten zuen batzuek bazeukatela nahikoa diru horretarako. Zerrendako izen batzuen ondoan, parentesien artean, ezizenak daude idatzita, euskarazkoak, herritarrek horrela ezagutzen edo izendatzen zituzten seinale: "Jose Zubia (**Pasajero**¹⁰), Francisca Olaizola (motela), Julian Galdona (**esquerra**)..."¹¹.

Zumaiarrek medikua eta botikaria beharko zituzten osasunez ondo ez zeudenerako, baina euskara garai hartan (ere) osasuntsu eta sasoi betean zegoen gurean. ■■■

¹ Hemen: <https://baleike.eus/zumaia/1586426350403-mediku-onak-eta-euskaldunak>.

² Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 1855-10-10..

³ GAO, 1855-09-19.

⁴ GAO, 1855-09-26.

⁵ GAO, 1855-10-01.

⁶ GAO, 1856-01-18.

⁷ Zumaiako Udal Artxiboa, 72.01, 1856-04-06.

⁸ ZUA, 72.01, 1856-04-06.

⁹ ZUA, 80.02, 1856.

¹⁰ Santiagotik herrigunerako txalupa zerbitzuaz edo pasajeaz arduratzen zena.

¹¹ ZUA, 80.03, 1878-05-20.



IONE LARRAGO

Talaimendiko tamarindoa



RAFAEL DEL PILAR ZUFIA

Uribarri, Aloñako magalean dagoen auzoa. Lau lagun hemen gaude Gorgomendi-Aloñako Gurutzera igotzeko asmoz, Aizkorri mendigunearen gailurrera.

Udaberriko laino handi batek estaltzen du mendia, eta atzera egitera behartzen gaitu. Gaurko *porrota* hamaiketako bikainarekin konpentsatuko dugu Txopekua tabernan.

Oñatira itzuliz, mintegi txiki batetik lau lizar-ardatz aterako ditugu. Jabea agertzen da, eta oso haserre, *sermoi* bat botatzen digu... eta zuhaiztiengatik eta bere belarra zapaltzeagatik faktura ere ematen digu: guztira, 24 pezeta.

Egun batzuk geroago, 1968ko udaren atarian, Ramon Zubiak eta biok dozena bat tamarindomakilatxo moztu genituen Santiagoko hondartzan. Inaxio Manzisidor eta Abelin Linazisororekin batera, lurra eman genien tamarindomakilatxoei eta Oñatitik ekarritako lizar-ardatzei Talaimendiko kostaldeko erlaitzaren lerroan. Haien sustraiek higadura ekiditen lagunduko zutela espero genuen.

Azken makila lur ezegonkorrean landatu genuen,

Itzuruntxikiko arroken gainean, itsaslabarraren ertzean.

Segurtasun neurri gisa, nire eskalada-soka erabili genuen.

55 urte igaro dira, eta landaketa hartatik azkena baino ez da bizirik geratzen, Itzurungo hondartza gainean, 54 metrora, Kantauri aldeko klimari eutsiz. Talaiatik, egunsenti argitsuak eta ilunabarrak ikusi ditu, horietako batzuk, itsas gaineko *izpi berde* iheskor eta krepuskularraren laguntzarekin. Lagun onekin, Ilargia eta Izarrekin, gaueko edertasun misteriotsu eta garbia partekatzen du.

Behatuta, itsaslabarraren gainean tente, denborak ezabatu ezin izan dituen iraganeko garaietako sentimendu eta oroimen nostalgikoak transmititzen dizkigu, gure bihotzen taupaden eta berotasunaren alboan jaio eta bizi direlako. ■

**AZKEN MAKILA LUR
EZEGONKORREAN
LANDATU GENUEN,
ITZURUNTXXIKIKO
ARROKEN GAINEAN**



Talaimendiko tamarindoa. GORKZA ZABALETA



Bidezko samintasuna



HAMAHIRU IPUIN

Argitaratzailea: Erein
Argitaratze urtea: 2012
Orrialdeak: 181
Generoa: Ipuin bilduma



TESTUA: ANTTON PEÑALBA

Hamahiru ipuin Luisa Carnesek 1931tik 1963ra arte idatzitako hainbat ipuinen bilduma dugu. Luisa Carnes 27ko belaunaldiko narratzaile handi ikusiezina da, 27ko belaunaldiaren argazkietan azaltzen ez zen idazle emakumea, alegia. Madrilen jaio zen langile familia batean. 11 urterekin ikasketak utzi eta lanean hasi behar izan zuen kapela-lantegi batean, eta esperientzia horiek bere konpromiso politikoa eratzten lagundu zioten. Autodidakta izanik eta kontzientzia sozialak hauspoturik, bilduma honetan besteak beste bidegabekeria, boteretsuen jarrera gupidagabea eta beharginen eta emakumeen egoera kaskarra azaleratzen dira.

Hamahiru ipuin ibilbide liluragarria da, idazleak berak egindako ibilbidearen isla. Espainiako II. Errepublikatik Estatu Batuetako supremazismora, arraza-bereizkeriara egindako ibilaldia, hain zuzen ere.

Liburua lau sailetan antolatuta dago, lau Luisa balira bezala, idazlea lau mundutan

bizi izan balitz bezala. Lehenengo lau ipuinek osatzen dute aurreneko saila, gazte garaiko ipuinak dira, II. Errepublikan girotutakoak. Horietan idazleak, batetik, hirietan nahiz landa eremuetan tradizioak eta pentsaera berritzaileak bizi duten talka erakutsiko digu eta, bestetik, landa eremuetako jornalarien borroka.

Hurrengo hirurek gerra ondoko garaia eta erbestealdia ekarriko dizkigute gogora. Luisa Carnesek garaiko emakumeen espetxeetako giroa gerturatuko digu, espetxealdia eta espetxealdiaren ondorengo egoera ekarriko digu begien aurrera.

Hirugarren sailean hiru dira multzoa osatzen duten ipuinak. Idazleak Mexikon bizi izan zuen aldia islatzen dute. Azkenik, azkeneko saila beste hiru ipuinek osatua da. Hauetan Estatu Batuetako muga zeharkatu eta arrazakeria inarrosleena, dardara arazleena eta mundu mailako ikuspegi zabalagoa erakusten digu narratzaileak.

Ipuinak gogorak baina hunkigarriak dira, eta bitan

izan ezik, emakumeak dituzte protagonista. Emakume indartsu eta seguruak, otzanak eta lotsatiak, besteren haurra berentzat hartzeko gai diren ama ausartak, biktima isilak edo duin bezain menderaezinak. Emakumeak baztertzen dituen gizartearen ñabardurak jasotzen dituzte istorioek. Emakumeek askatasuna eskuratu nahi dute, beren bizitzetan zer egin aukeratzeko eskubidea izan, labur esateko, zoriotsu izateko bidea beraiek egin. Baina errealitateak, batzuetan legeek, eta beste batzuetan egoera sozioekonomikoak edo aurreiritziak eta jaso duten heziketak eragozten die zoriontasunerako bidea.

Bilduma hasieratik amaierara da zoragarria. Istorio guztiek ustekabeen harrapatuko dute irakurlea eta zer hausnartua emango diote irakurleari. Baztertuen eta behartsuen miseria gorria agerian jartzeko aldarrikapenak aletuko ditu idazleak irakurlearen kontzientzia astindu nahian. ■■■

DOAN EZ DA DEBALDE



**ZURE EKARPENA
BEHAR DUGU.
EGIN ZAITEZ
BAZKIDE.**

bazkide@ukt.eus • 943-81 38 41

**Gerentzia-postuetan emakumeak %6a bakarrik
izatea ez da prestakuntza edo lidergo faltagatik.**
Erakundeetan gizonen pibilegioak eta rolak
betikotzen direlako baizik.

**Martxoak 8,
Emakumeen
Nazioarteko Eguna**



EMAKUMEAK GORA

emakumeakgora.eus

araba álava
foru aldundia diputación foral

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Guipúzcoa



**ITURIZUNA
ORAIN**
Es futuro

EUDEL
ERAKUNDEEN EN ELABORAZIÓ
HERRIAREN ERABAKI BAKARRA

EMAKUNDE
ERAKUNDEEN EN ELABORAZIÓ
HERRIAREN ERABAKI BAKARRA

EUROPEAN COUNCIL
ERAKUNDEEN EN ELABORAZIÓ
HERRIAREN ERABAKI BAKARRA



Idoia

ARDOTEGIA

Julio Beobide, 2

943-57 49 86



Casa
BASUSTA
LORATEGIA

*Lorazaintza zerbitzuak | Oparitzeko lore sortak
Hileta eta ezkontza zerbitzuak | Apainketa eta dekorazio osagarriak*

Etxez etxeko zerbitzua!

Santiago auzoa, 18

943-86 26 11

www.floristeriabasusta.com